



Izaskun Rueda
zirku-artista: «Ilusioa
galdu barik, lan eginez,
ametsak lor daitezke». ▶9

Alex Gerediagaz berba egin dugu
Malmö film eszenikoaz. Barikuan,
urtarrilak 15, taularatuko du
Khea Ziater taldeak, Sopelan. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



44. zenbakia

2016ko
urtarrilaren 14tik
urtarrilaren 20ra arte

Kantera, skatezaleen memorian



Arrigunagako
skate-parkeko historia
kolektibora jauzia egin
dugu, protagonisten eta
zaleen eskutik. ▶22

JAKUE ANDIKOETXEA



«Honen pareko lanik topatzea zail ikusten dut»

Xabier Paya Ruiz bertsolari, irakasle, itzultzaile eta kulturgile algortarrak urte bi egingo ditu Donostia 2016ko programaren zuzendari-arduran.

Urtarrilaren 18an hasiko dira Europako kultur hiriburutza ospatzen, Donostian; hainbat hilabetez, ehunka ekitaldi egongo dira hirian zein bertatik kanpo. Getxon, berbaldiak

eta musika-ikasleen topaketa egingo dituzte, Xabi Payak aurreratu duenez. Bitartean, azaroaren 24tik kalean da algortarrak eta Patxi Gallekok egindako *Nork* komikia. ▶16

HERRIZ HERRI SOPELA / BERANGO

Sutea gurata eragindakoa zela uste dute

Abenduan Berangon isiotutako baso-sutea «nahita eraginda» izan zela uste du Ertzaintzak; teknikariek horren jatorri naturala baztertu dute.

Berangon piztu eta 200 hektarea inguru kiskali zituen sutea ikertzen dabil Ertzaintza, nahita eragindakoa izan zela susmatzen baitu. Sutea amatazen lagundu zuten eskualdeko auzotarrek Itsas Lehorra Bizirik plataforma sortu dute, «gure eskualdearen ingurumena babestearren». ▶7/8

Getxoko Gure Esku Dago-k erabakitze eskubidea kulturagaz eta berrikuntzagaz lotuko du hilaren 19an, Areetan. ▶3

Erandioko aurrekontuak %5 handitu ditu Udalak, zerbitzuak bermatzeko; oposizio osoa kontuen aurka azaldu da. ▶5

Kurtzio Kultur Etxeak indartsu hasiko du urtea; martxora arte, denak asetzeko egitaraua prest daukate Sopelan. ▶11

Saioa Agirre kirolaririk onena da Getxon. Gimnasta gazteak Getxo Sasoi Sasoiaren kirol-galan hartu du saria. ▶18



Eskubide guztiak guztiontzat

Larunbatean Bilbon preso-aren eskubideen aldeko manifestazioan egon nintzen eta lehenago, antolatzaileek egin zidaten eskaera bati erantzunez, nire babes eman nion ekintzari, «Gure ize-nean ez» izeneko idatziarekin bat etorritz. Oso erabakita sinatu nuen adierazpena eta pozik nago Bilboko kaletan egon nintzelako, baina bi kezka geratzen zaizkit.

Nire ustez euskal gizarte-ko jende ugari nabarmen jo du atzera giza eskubideen defentsan, gizartea gai hauetan jarra aktiboetatik urruntzen ari da neurri handi batean.

Presoen egoera tamalgarri, ulergarri eta salagarri honek ez du gehiengoa kezkatzen, lehen eskubideen urraketa hauek inola ere onartzen ez zituzten askok eta askok gaur ez diete arazo hauei behar adina kasurik egiten. Eta benetan oso larria dela uste dut. Presoak Estatu espainiarrean eta frantsesean beren etxetik ehunka kilometrotara barreriatuta egoteak, bere sendikoei bidaia luze, arriskutsu eta garestiak egin beharrik zein gaixotasun larria duten presoek, gure atentzioa eta kezka sortarazi beharko lizkigukete.

Eta, kezka horrekin batera, larunbatean manifestazioan egon ginen guztien jarreraz ere kezka dut. Askok pertsona guztien giza eskubide guztiak bermatuta izatea aldarrikatzen dugu. Ziur nago manifestazioan egon ginen gehienok hori dugula barnertuta. Baina denek? Jakin nahi nuke preso-aren sentimenterako eta lagunek, hau da sentimendutik politikoz presoengandik hurbilen dauden manifestariak, beste pertsona batzuen giza eskubideak, baita beren «etsaien» eskubideak, urratzen badira manifestatuko ote liratekeen inoiz. Edo behinik behin kasu hauen aurrean ere kezka eta mina sentitzen dutela sinetsi nahi nuke. ◀

Getxo

Aurrekontua, ezbaian

Alderdien eztabaiden «aurrerapausoen arabera», Gobernu-taldeak izango du azkenengo hitza.

Hasi berri den urterako Getxoko Udalararen aurrekontuen eztabaida aurrera doa. Aurreko urteetako aurrekontu-luzapenen ostean, 2016rako udalerriko diru-kontuen egitasmoa eztabaidatzen dabilta alderdiak. Gobernu-taldeak 2015eko urte amaieran aurtengo aurreproiektua helarazi zien oposizioko alderdi guztiei, horiekaz akordio bat lortze aldera. Aurkeztutakoaren abiapuntua 96 milioi eurokoa izan da, %2,45eko murrizketagaz diru-sarreretan. Hala ere, gastuak aurreko urteetako soberakinakaz finantzatu ahal izango direla jakinarazi du Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE).

EH Bilduk iragan abenduan zabaldu zuenez, «EAJrekin hilabetez negoziatu ondoren, aurrekontuak udalbatzan eztabaidatzea lortu» zuten. Ostera, jeltzaleek hori «ez datorrela batera errealitatearekin bat» adierazi zuten segidan. Gobernu-taldeak azal-



2015eko urte amaieran aurrekontu-aurreproiektua aurkeztu zuen Gobernu-taldeak.

du zuenez, eztabaida-prozesu horretan ematen diren «aurrerapausoen arabera», EAJk eta PSE-EEK erabakiko dute aurrekontua udalbatzara eroan ala ez. Aurrekontua, beranduenez, martxorako onartu beharko dute.

EH Bilduren prozesua

Prozesu parte-hartzailea egitea izan da EH Bilduk ezarritako «ezinbesteko» baldintza, 2016ko aurrekontua osatze-

ko. Ondorioz, aurrekontu parte-hartzaileak osatzeko prozesua abiatuko du urtarril eta otsail bitartean. Horretarako, hainbat bitarteko eta eremu ipiniko dituzte herritar denek eskura, berbarako: triptikoak, bilerak eta inkestak. Azken horiek ostalariei eta elkartei zuzenduta egongo direla jakinarazi dute. Iritziak jaso ostean, otsailean, lortutako emaitzak jakinaraziko dituztela iragarri dute. ◀

Bidaia-ontzien terminal berria 2017rako egongo da martxan



Terminal berriak 15 metroko altuera izango du. BPA

BPA Bilboko Portu Agintaritzak Giroa eta Excavaciones Viuda de Sainz S.A. enpresei esleitu dizkie Getxoko bidaia-ontzien moilako terminal berria eraikitze lanak. Esleipena 4,6 milioi eurokoa (BEZ barik) da, 11 hilabeteko epeagaz lanak amaitzeko. Terminal berriak 15 metroko altuera eta 3.200 metro koadro erabilgarri izango ditu. Kristalezko edukiontzia itxurako eraikina izango da, «arina eta oso

argitsua». Beheko solairuan sarrera eta informazio turistikorako bulegoa egongo dira. Beste solairu batean, VIP aretoa eta bulegoak; eta beste batean, itxarongela eta bidaiariak jaisteko gunea. BPAk adierazi du terminal berria «Europako abangoardian» egongo dela. Prosertek S.L. enpresak, berriz, bidaiariak ontzian sartzeko bide mugikorra eraikiko du, ia milioi bat euroren truke, 10 hileko epean. ◀

Eudelen gomendioak onartu ditu Udalak, soldaten harira

Udal langileen soldaten inguruan, Eudel Euskadiko Udalen Elkar-teak egindako gomendioakaz bat egitea adostu du Getxoko Udalak: EAJ, PSE-EE, Ciudadanos eta PP alderdiek neurri horien aldeko botoa eman zuten; EH Bildu eta GUK, berriz, kontra agertu ziren.

Hori horrela, adostutakoaren arabera, hiru neurri hartuko dituzte. Lehenengoa, 2015eko funtsa sortzea zerbitzu publikoen prestazioak modernizatzeko eta banatzeko, eta udal-administrazioaren produktibitatearen soldata %0,6 hobetzeko. Bigarrena, 2012ko ordainsari estra berreskuratzea; 2015ean soldata horren %50,7 ordaindu zuten, bi ataletan (%24,4 uztailen, eta %26,23 abenduan; hil honetan gainontzeko %49,73 ordainduko dute). Azkenik, 2016an ordainsariaren %1 igotzea. Azkenengo neurri horregaz, Espainiako 2016ko Aurrekontu Orokorren Legearen gehienekora helduko lirateke. ◀

Getxo

Proiektu sozialak sustatuz

Getxoko Udalak 261.650 euro bideratuko ditu proiektu sozialak sustatzeko. Eskaerak aurkezteko epea urtarrilaren 30era arte egongo da zabalik.



Eskaerak Herriarren Arretarako Bulegoetan edo Gizarte Zerbitzuen egoitzan egin daitezke.

Gizarte Zerbitzuak udalerrian elkarlanean dabilzan edo udalerriko biztanleei zuzendutako jarduerak egiten dituzten elkarten artean 261.650 euro banatuko ditu Udalak. Eskaerak aurkezteko epea hilaren 30era arte egongo da zabalik. Aurtengo deialdian, iragan martxoan zarama batzeko zerbitzuak egindako grebategatik izandako fakturaren gastuaren murrizketaren zenbatekoaren erdia sartuta dago; gainontzekoa hurrengo deialdietan sartuko dela iragarri dute. Elena Coria Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak nabarmendu duenez, diru-laguntza horiekaz «gizarte kohesio handiagoa sustatu» gura dute.

Diru-laguntza horiek sei ildo izango dituzte aurrerantzean ere. Hala, 45.000 euro udalerriko erakundeen ohiko jardueraren funtzionamendurako zuzenduko dira; 15.000 euro,

Getxorako interesa duten proiektu zehatzetarako; 20.000 euro, proiektu esperimentaletarako edo berritzailetarako; 69.650 euro, parte-hartzea sustatzeko; 102.000 euro, esku-hartze sozialean laguntzeko; eta, 8.000 euro, etorkinen harrerarako eta kulturartekotasuna sustatzeko.

Eusko Jaurlaritzan edo Getxoko Udalean erregistratuta dauden «irabazi asmo bako elkarteek, organizazioek edo entitateek» eskatu ahal izango dute diru-laguntza. Udalak gehienez proiektuaren %75 lagunduko du diruz, eta proiektuari dagokion exekuzioak eta justifikazioak %100 izan beharko dute. Eskaerak Herriarren Arretarako Bulegoetan, Gizarte Zerbitzuen egoitzan (Algortako Urgull kalea, z/g) edo legeak aurreikusitako lekuetan aurkeztu ahal izango dira. ◀

harremanetarako: 944 660 151
info+: www.getxo.eus

Laguntzak euskarazko jarduerentzat

Getxoko Udalak 32.000 euro banatuko ditu ikastetxeek eta guraso-elkarteek euskara sustatzeko antolatzen dituzten eskola-orduz kanpoko 181 jardueren artean; iaz baino 23 jarduera gehiago izango dira aurton. Urtez urte, gero eta tailer eta ikastaro gehiago aurkezten dituzte udalerriko 25 entitatek. Txikienen artean euskararen erabilera sustatzea dute helburu, hizkuntza-jarduera ludikoarekiko lotura bultzatuz, araututako eskola-jarduera osatzeko, eta aldi berean, gurasoen eta umeen arteko harremana euskaraz izatea ere susta-

tu gura dute. Ikastetxe publikoek zein pribatuek eta horietako guraso-elkarteek jasoko dituzten diru-laguntzak mota askotako jarduerak egiteko izango dira, berbarako: gimnastika, arte, sexualitate edo patinaje tailerrak, irteerak, txangoak, askotariko kirol jarduerak, zein euskal asteak.

Aurten, berritasunen artean, Zabalako eskolako gurasoen elkartearen zinekluba eta Getxophoto txiki, zein San Nikolas ikastolaren «Ingurumen ikerketak. Hiritartasuna» izango dira, besteak beste. ◀

info+: www.getxo.eus

Angel Oiarbide, Juan Jose Ibarretxe, Pako Letamendia eta Rozio Lucas, GEDren berbardian

Gogotsu hasi du urtea Getxoko Gure Esku Dago taldeak. Hilaren 19an, martitzena, Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiak, Angel Oiarbide Gure Esku Dago-ko (GED) kideak, Pako Letamendia irakasleak eta Rozio Lucas euskaltzaleak erabakitze eskubidea kultura eta berrikuntzagaz lotuko dute. Hitzordua 19:30ean ipini dute, Areetako Andres Isasi musika-eskolan.

Bazkideak lortzeko kanpaina

Erabakitze eskubidea gauzatzeko erronkari aurre egiteko asmoz, herri-tarron partaidetza eta protagonismoa



Hilaren 19an izango da berbardia, Areetan.

«ezinbestekotzat» jo ditu GEDk. Hala, bazkideak lortzeko kanpaina martxan jarri du ekimenak; horretarako, fitxa bete beharra dago herri edo auzo batzordeagaz harremanetan ipiniz, edo Gure Esku Dagoren webgunean. ◀

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 20
48901 Algorta-Getxo
Tf. 94 468 29 33
portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

TABERNA Unai JATETXEA

ALGORTAKO ETORBIDEA. 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM

ITXASGANE

prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritluz z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA. Tf. 94 430 64 93

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gubi denik ez prentsa"

Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Getxo

Ondarea balioan ipintzeko urratsak ematen dabilta

Galeako gotorlekuaren zaharberitze-lanen finantzaketan laguntzeko eskatu diote Aldundiari. Begoñako galerien inguruko bideoa ere egingo du Udalak.



Begoñako galeriak Munduko Ondareztat aitortzeko ekimena jarri du martxan Udalak.

Getxoko Udala «aholkatu» eta Galeako gotorlekuaren zaharberitze-lanen finantzaketan laguntzeko eskatu diote Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari. PPK aurkeztu zuen eta jeltzaleen zuzenketa-eskea jaso zuen arauz besteko proposamenak talde bi horien eta PSE-EEren aldeko iritzia jaso zuen; EH Bildu kontra agertu zen, eta Podemos Bizkaia abstentitu egin zen. Batzarretako talde guztiek uste dute Galeako gotorlekuak eta itsasargiak osatzen duten monumentu-multzoa «oso puntu garrantzitsua» dela turismoaren eta kulturaren ikuspegitik, eta beharrezkoa dela herri-administrazioek bertan parte hartzea. Eusko Jaurlaritzak Kultur Ondasunaren adierazpentzat onartu aurretik, Bizkaiko Golkoko «lehenengo» itsasargia barne hartzen duen gune hori «balioan jarri» beharko litzatekeela adierazi zuen Arturo Aldecoa popullarrak, eta «ondo kontserbatuta» dagoen XVIII. mendeko gotorleku militarra gehitu beharko litzaikeela horri.

Foru Aldundiak gotorlekuaren «kudeaketa eta kontserbazioa» bere gain hartzea eskatzen zuen PPren jatorrizko eskariak; hitzarmen baten sinaduraren bitartez. Gainerako taldeen iritziz, hori Aldundiaren eskumenen eremutik kanpo dago. Horren albotik, EAJk zuzenketa-eskea aurkeztu zuen,

leku horren zaharberitzea bultzatzeaz gainera, «Udalaren autonomia» errespetatzeko, leku horren jabea Getxoko Udala da-eta.

Multzo arkitektoniko hori berreskuratzeko beharraz ados egon arren, Podemos Bizkaia eta EH Bildu zalantzak dituzte gotorlekuak etorkizunean izan ditzakeen hainbat erabileren inguruan. Podemoseko Jose Angel Elgezabalek erakundeakaz eta gizarteko eragileakaz «batera egindako eta adostutako» proiektua eskatu zuen, eraikinari emango zaion erabilera azalduz. EH Bilduko Meritxell Elgezabalek gotorlekuaren erabilera publiko «bermatzeko» eskaria egin zuen.

Begoñako galeriak, aitortza bila
Unescok Begoñako galeriak Munduko Ondareztat aitortzeko testigantza-bideoak eta aurkezpen-film labur bat egingo ditu Getxoko Udalak.

Ondasun bat Munduko Ondareztat izendatzeko, Unescok lekukotasun ukiezinen inguruko dokumentazioa eskatzen du. Hala, galeriak balioztatzekeo egitasmoaren bitartez, Unescok haien babesa eta zaintza aitortu ditzan gura du Udalak.

Ekimen berria hiru ataletan banatuko da: lehenengoa, aurkezpen-film laburra; bigarrena, erreferentziazko ahozko iturrien artxiboa; eta hirugarrena, lekukotasun ukiezinak. ◀

Bost proiektu saritu dituzte 2015eko Wanted ideia-lehiaketan

Udalak antolatutako Wanted lehiaketan puntuaziorik altuena lortu duen proiektua «Getxoexpress» izan da. Film labur «express»-en lehiaketa bat da, eta horren sustatzaileak honakoak izan dira: Ana Angulo Umaran, Janire Dominguez Azkue eta Guillermo Sevillano Carballo. Bigarrena «Lola y Dolo» izan da, antzerkia eta musika uztartzen dituen umorezko proiektua; Maitane Aspe Fidek, Amaia Miranda Casquerok eta Leire Bueno Sotorenak sustatuta. Hirugarren saria, berriz, «Ejes de precision para longboard» proiektuarentzat izan da, longboarderako ardatz berriak garatzeko. Egileak Alejandro Garcia Guisan, Jabier Cereceda Rodriguez eta Asier Bilbao Arri izan dira. Laugarren saria «RedMedia Productions» Community Management-ek tokiko artistentzat eginiko zerbitzuak jaso du; eta bere sustatzaileak izan dira Beatriz Sanchez-Serrano Arteagabeitia, Sara Coteron Esteban eta Amaia Landa Izquierdo. Bosgarren sa-



2015eko Wanted lehiaketako irabazleentako batzuk. GETXOKO UDALA

ria Eskubeltz 25, koloreak zabaltzen dokumentalarentzat izan da; horretan, aisialdi-talde historikoa eta Getxo erakusten dituzte. Gonzalo Loza Perezek, Maria Roggero Asensiok eta Paul Perez Palaciosok aurkeztu dute ideia.

Aipatutako proiektu horiek jasoko dituzten dirusariak ondoko hauek dira: lehenengoak, 4,563 euro; biga-

renak, 3.400 euro; hirugarrenak, 6.600 euro; laugarrenak, 5.000 euro; eta, bosgarrenak, 2.437 euro. Horrez gainera, proiektu bakoitzak 10 orduko laguntza profesionala ere jasoko du, eurretako bakoitzak aukeratzen duen gaian. Laguntza horiek guztiak 2016an proiektuak garatzeko aurrekontuei dagozkie. ◀

Etorkinen kontrako aurreiritziei aurre egiteko saio gehiago antolatu dituzte

Zurumurruen kontrako estrategia Zurrera doa Getxon. Horren bitartez, udalerrian etorkinen inguruko aurreiritziak baztertu nahi dituzte. Beraz, *Antirumours in Motion* izeneko egitasmoaren bigarren edizioa ipiniko dute martxan. Hitzordua hilaren 30ean eta 31n jarri dute, Algortako Fadura kiroldegian. Egun biko jardunaldiak doakoak izango dira, eta Zurumurruen kontrako Estrategiako kideei zuzenduta egongo dira; hala ere, etorkinen kontrako aurreiritziei aurre egin gura dien edozeinek parte hartu ahal izango du.

Hilaren 30ean, zapatuan, «Gestion emocional y Educacion, via para la integracion» eta «Resolucion de conflictos y Accion juvenil e incidencia social» izeneko mintegiak egongo dira, gazteleraz, goizez eta arrastiz, hurrenez hurren. Domekan, berriz, goizean «Mujeres migrantes, rumores y realidades», eta, arrastian, «Asilo, refugio y nuevos rumores» izeneko mahai-inguruak egingo dituzte. ◀

Erandoio

Aurrekontuak ia %5 handitu ditu Udalak

Erandiok krisialdi sakon eta luzerako aurrekontuak onartu ditu, Joseba Goikouria alkatearen esanetan. Halere, «errekuperazioari laguntzeko» kontuek 31,3 milioi izango dituzte, iaz baino %4,89 gehiago. 2012an, 35,3 izan ziren.


EAJ eta PSE-EEren Udal Gobernuaren ustez, «bizi-kalitatea eta udalerriko zerbitzuak» bermatzeko ahaleginaren emaitza dira pasa den abenduaren 23an onartutako aurrekontuak.

Halere, Gobernuko alderdiak jakitun dira aurtengo kontuek aurre egin behar dietela ohikoak ez diren hiru arazori. Horietako lehena azken boladako «ekonomiaren ziurgabetasun-egoera» da; bigarrena, Bizkaiko udalerrri gehienek legez, herriak Aldundiari bueltatu behar dion Udalkutxaren diru-kopuru handia: 900.000 euro baino gehiago; eta azkena, lehenengo hiruhilekoan bueltatuko zaiela udal langileei 2012an ordaindu ez zitzaizen

aparteko ordainsariaren %50a. Bestalde, aurrekontuek ia %5 gora egiteak ez du esan gura partida denak neurri berean handitu direnik. Kontuak hala, inbertsioak %16,38 hazi dira, eta euskararentzako partida, %6,45. Era berean, Elena Perez zinegotzi sozialistak azpimarratu du gastu sozialetarako hazkundea %8koa izan dela, eta enpleguarena, %9,15koa.

Oposizioiko alderdi denek (Ganemos Erandio, EH Bildu eta PP) errefusatu egin dituzte aurrekontuak, kontrako botoa emanaz. Aiala Eguiluz zinegotzi popularraren ustez, «Udal Gobernuak ez du batere asmorik izan oposizioagaz akordioetara heltzeko eta ekarpenak onartzeko».

Inbertsioen bilakaera



Aurrekontuak 2016

Sarrerak	
Foru-transferentziak	15.482.622 €
Zuzeneko zergak	7.510.000 €
Tasak eta bestelakoak	5.291.325 €
Inbertsio errealak besterentzea	1.500.000 €
Bestelako transferentziak	1.105.053 €
Zeharkako zergak	220.000 €
Ondare-sarrerak	136.000 €
Kapital-transferentziak	45.000 €
Finantza aktiboa	10.000 €
Irteerak	
Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	14.097.310 €
Pertsonal gastuak	12.783.637 €
Ohiko transferentziak	1.638.216 €
Inbertsio errealak	1.773.110 €
Finantza-pasiboak	902.727 €
Gertakizunetarako funtsa	90.000 €
Finantza-aktiboa	10.000 €
Finantza-gastuak	5.000 €

Astrabuduko jai-batzordeak premiazko batzarrera deitu du

Astrabuduko Ulpiano jai-batzordeak arazoak ditu gaur egun. Izan ere, batzordearen kide-kopurua behar baino txikiagoa da, hainbat lagunek kolektiboa utzi ostean. Hori dela-eta, laguntza eskatzera behartuta ikusi du bere burua, eta herritarrengana jo du, «jai ikaragarriak antolatzen jarraitu ahal izateko». Kontuak hala, ba-

tzarra egingo dute barikuan, urtarrilaren 15ean, Josu Murueta kultur etxeko musika-eskolako areto nagusian, gura duten auzokideek-eta jai-batzordea ezagutu eta bertan parte hartzeko aukera izan dezaten. Hitzordua 19:30ean ipini dute. Honakoa gogorazi dute batzordekoek: «Astrabuduko jaiak zuen esku daude! Anima zaitezte!».

Bi gazte epaituko dituzte, Kalezulo gaztetxea dela-eta



Astlehenean Erandioko gazte bi epaituko dituzte Bilboko Buenos Aires kaleko epaitegietan, Kalezulo gaztetxean eraikin-usurpazio delitua egotzita. Bista 11:30ean hasiko da. Kalezulo gaztetxearen hustea eta itxiera eragin lezake epaiak. Aurretik, domekan, elkartasun-argazkia antolatu dute Jado kalean, 13:30ean.

LUBERRI Basolanak S.L. LOREZAINITZA

- Soropila Ezartzea: lurzoru prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtzioko organitze lanak eta erate lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea: Moxia, ureztatzea, organitzea, eguraztea, aratzea eta desinfektatzea, berreskuratzea, soropil goiztak eta belar goiztoak tratatzea.
- Inausketak: Hazteko, mantentzeko, berreskuratze, zaharkita opaingarriak inauszea, esabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Arpe (baiterzia 28A behelko solarua B12 lokala (ERANDIO)) Meg: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net - www.luberr.biz

txakoli mota ganeTx txakolina

leiza-Liñe errepidea 34 (Alartanda Parke) Goheri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolinagane.com

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

Leioa

Gardentasun-ataria zabalduko du Udalak

Leioa Zabalik izeneko atal berria ipiniko dute udal webgunean; erakunde publikoko kudeaketaren gaineko «datu denak» herritarrek eskuratzeko moduan egongo dira.



Proposamenak eta kexak bideratzeko aukera egongo da.

Leioako Udalaren kudeaketari buruzko «datu denak» herritarrek eskuratzeko moduan jarriko dituzte agintariak, «modu erraz eta argi batean», erakunde publikoak plazaratutako azken aldizkarian irakurri daitekeenez. Udalaren webgunean zabalduko duten atal berriari Leioa Zabalik izena ipiniko diote. Iban Rodriguez Etxebarria lehen alkateordeak zehaztu duenez, «aste honetan ez bada, hurrengo astean jarriko dugu ikusgai». EAJko zinegotziak gaineratu duenez, atal berriari «azken ukituak egiten da biltza» egunotan.

Udalak aitortu duenez, erakunde publikoen gardentasuna arautzen duen legeak horrela aginduta ekin zioten euren webgunean atal berria diseinatzeari. Hala ere, «aukera aprobetxatu» gura izan dute agintari leioztarrek, «pauso bat gehiago» emateko. EAJk eta PSE-EEk osatzen duten Gobernu-taldeak leioztarrek daukan «konpromisoa» gauzatu nahi du. Gardentasunaren bidean, «gobernu irekia» daukate aipagai udal agintariak. Euren berbetan, hiru ardatz

izango lituzke horrek: parte-hartzea, lankidetzeta eta datuen zabalpena.

Leioa Zabalik izeneko atal berrian, Udalagaz eta erakunde horren kudeaketagaz lotutako «edozein datu» kontsultatu ahal izango dute herritarrek, «modu erraz, argi eta eguneratuan». Horien artean, ekintza-planak, proiektuak, udalaren erabakiak, baliabideen banaketa-txostenak, eta aurrekontuak aurkitu ahal izango dira, *Leioa* aldizkariako abenduko zenbakian irakur daitekeenez.

Parte-hartzea

Parte-hartzea ardatz garrantzitsutzat daukate udal agintariak. Batetik, Gobernu-taldeak «egunegun Leioan eragina daukaten gaiez jakitun» egin gura ditu herritarrak. Bestalde, parte hartzeko Udalak eskaintzen dituen aukera denak egongo dira eskuragarri Leioa Zabalik atalean; «leioztarrek iradokizunak eta proposamenak egin ahal izango dituzte, baita euren kexak plazaratu ere», diote agintariak. Beste hainbat erabilera edukiko ditu gardentasun atal berriak. ◀

Pinosolo auziaren artxiboaren gaineko iritzi desberdinak

Pinosolo auziaren artxiboa «delituen preskripzioak eragin duela, ez akusatua errudun izateak» salatu zuen Leioako EH Bilduk, 2015eko abenduan plazaratutako aldizkarian. Gainera, ustez Udalak ordaindutako San Diegora (Kalifornia) egindako bidaia azaleratu zuen koalizio abertzaleak; besteak beste, Jon Loizaga kirol-zinegotzi ohia eta Arcain enpresako bi teknikari joan ei ziren, kale egin zuen Olatu Artifizialaren proiektua aztertzeko asmoz. Leioako EAJk, bestalde, Loizagaren beraren eta orduko alkate Eneko Arruebarrenaren «errugabetasuna» defendatzen du, Carmen Adan del Rio Bizkaiko Lurralde Auzitegiko

fiskalak diligentziak zergatik artxibatu zituen azaltzeko; *Gure Lurra* aldizkariaren azken zenbakian eman zuten horren berri jeltokideek.

2014ko azaroaren 28an, Javier Ruiz Bizkaiko PPko idazkari nagusiak aurkeztu zuen Arruebarrena eta Loizagaren kontrako salaketa, Pinosoloko kiroldegiko eraikuntza-lanak esleitzeko orduan irregulartasunak egon zirelakoan. 2015eko irailean, osterata, ikerketak bertan behera utzi zituen Adan del Rio fiskalak. Horretan oinarrituta, «Pinosolo auzirik ez dagoela» adierazi du Iban Rodriguez lehen alkateordeak: «ezin izan da frogatu delituri zegoenik, eta ez da epaiketarik egin». ◀

Gabonetako idi-probetarako diru-laguntza, eztabaidagai

Gabonetako kirol-ekitaldietarako Udalak emandako diru-laguntzen %77,2 Euskal Kirol Zaleak elkarteak antolatutako Ondizko Kinttopeko Idi Probek jaso zutela salatu du Esnatu Leioa alderdiak; 12.230 euro jaso ei zituen aipatutako taldeak. Horren «larritasuna» agerian uzteko, «Leioako Eliekagai Bankuak» subentziorik ez duela gaineratu du Ahal Dugu-ren inguruko alderdi horrek; behartsuentzako jakiak kudeatzen dituen Sortarazi elkarteari lokala uzten dio Udalak, Ibarbarri industrialdean. Iban Rodriguez lehen alkateordeak gaia «manipulaztea» egotzi dio Esnatu Leioari. Urteko diru-laguntzetan, Leioako Udalak



© LEIOAKO UKI

«hiru milioi euro baino gehiago» ematen dituela azaldu du EAJko zinegotziak; tartean, Sortarazik ere jasotzen du subentziorik, agintariaren berbetan. Leioak eliekagai bankurik ez daukala zehaztu du Rodriguezek; bai ordea, Sortarazik kudeatzen duen lokala. ◀

Kendu egin dute Ondizko baselizan pilatutako zaborra

Ondizko baselizatik gertu, ezezagunek hondakinak bota zituztela salatu zuen herritar batek, 2015eko abenduaren hasieran, *Facebook* sare sozialaren bidez. Legez kanpoko zabortegi hori daborduko kendu egin dutela jakinarazi du Iban Rodriguez Etxebarria Leioako Udaleko lehen alkateordeak. «Saiatzen gara horrelako kasuak gerta ez daitezen, baina, zortzarrez, gero eta gehiago gertatzen

dira», deitoratu du agintari jeltokideak. Gaineratu duenez, «zabortegietan jartzen diren neurriak direla-eta, diru apur bat aurreztearren, jendea ez da konturatzen zer-nolako kaltea egiten dion ingurumenari». Horrelakoak gerta ez daitezen «adi» daudela ohartarazi du Rodriguezek: «baten bat harripatu dugu, eta merezi zuen isuna jaso du». Hala ere, zaila izaten dela aipatu du agintari leioztarrek. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez:

Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



Sopela



Sarrerak agortu zirela jakinarazi zuten eguaztenean. SOPELAKO UDALA

Elliott Murphy, zapatu honetan, Kurtzion

Estatubatuarraren kontzertuaz gainera, Malmö antzezlanaren ere ikus ahalko da aste-akabuan

Elliott Murphy musikari estatubatuarrak *Aquashow Deconstructed* disko berria aurkeztuko du zapatu honetan, urtarrilaren 16an, Kurtzio kultur etxean. Lan berri hori bere lehen diskoaren berrikuspena da; izan ere, jatorrizko hamar abestiak moldatu ditu ahots biziagaz eta gogo berrituagaz.

Olivier Durand-egaz batera igoko da Kurtzio Kultur Etxeko oholtzara. Hain zuzen ere, Murphyk ahal beste instrumentu grabatu ditu, Durand adiskide banaezin eta bertuosoaren ekarpen bikainagaz. Kontzertua 20:00etan hasiko da; sarrerak agortu dira.

Bestalde, barikuan eta ordu berberetan, *Malmö* ikuskizun berezia ekarriko du Khea Ziater taldeak: «Piezaren abiapuntua bi lagun arteko trizioaren eta mendekuaren erretratua da. Gorrotoa eta sentipen kutsatuenak azaltzen diren unetik barkameneraino iristen den bidaia, elkar ulertzea guru-

tzatuz. Askotan, bien arteko harremanak kolorez aldatzen du bat-batean; hainbat hitz, edo gertakari zehatz bat izan daiteke eraldaketaren errudun».

Horrela, ideia da bilakaera hori konpainiaren beste lanek erabilitako tresnen bidez erakustea: pertsonaien ikuspuntura gertuarazten lagunduko duten erreferente zinematografiko eta bestelako mekanismoak erabiliz, ikusleei ikuspegi eszeniko sendobaten bitartez eskaintzeko, bai plano estetikoan, bai antzezpen-baliabideei dagokienez. Euskaraz izango da, eta 5 euroan eros daitezke sarrerak. ◀

Udalak baliabideak ipiniko ditu sutean kaltetutako eskura

A bendu akabuko suteak eragindako ingurumen-kalteak «deitoratu» ditu Sopelako Udalak. Horregaz batera, elkertasuna adierazi die «estutasun momentuak jasan edo material ondarean galerak jasan dituztenei». Hala, kaltetuen eskura jarriko ditu Udalak bere baliabideak (aholkularitza, laguntasuna...), abendu osoko bilkuran adostu zuten. Halaber, sutea amatatzeko beharretan lagundu zuten boluntarioei eskerrak eman dizkie.

Bestalde, Itsas Lehorra Bizirik plataforma sortu berriak ondoko neurriak proposatu ditu, «etorkizunean gerta daitezkeen aurrean»: suteen aurkako kabinak jartzea, ingurune naturalak ahalik eta egoerarik onenean mantentzea, kaltetutako eremuak berreskuratu eta kudeatzeko plana egitea, basoak berreskuratzea eta udalek konpromisoa hartzea suteek kaltetutako eremuak urbanizagarri egiten dituen lege berria ez erabiltzeko. ◀

No llores, vuela gaur, Genero Ikuspegiko zinema-zikloan

Gaur, eguenagaz, Genero ikuspegiko zinema-zikloaren 2016ko denboraldia hasiko du Itzartu Sopelako emalumeen elkarteak. Ohi den legez, hamabostean behin egingo dituzte saioak, Kurtzio kultur etxean, eta filmak proiektatzeagaz gainera, ostean, berbaldiak ere egingo dituzte.

Urteko lehenengo filma aukeratu dute: *No llores, vuela*, Clausia Llosak zuzendutakoa. Urtarrilaren 28rako, berriz, John Patrick Shanley-ren *La duda* emango dute. Itzartuk sopeloztarrak animatu ditu, filma ikusteaz aparte, solasaldian parte hartzera. Emanaldiak 18:00etan hasiko dira, eta sartzeari doakoa izango da. ◀

DIDAK HAMILTON
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TF: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

LURREN
GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaleko atzean)

aiak
GOSARIAK PINTXOAK
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!
Bentatu 2. Tf. 94 676 03 28 SOPELA

Haur Hezkuntzatik Batxilergora
Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
I K A S T O L A

Urduliz

Gardentasunaren bidean dago Udala

Herritarren parte-hartzea sustatzeko plataforma inauguratu dute: Zabaltzen.

Udalak Urduliz Zabaltzen ize-neko *online* atariaren «Gardentasun-atala» inauguratu du, BiscayTIK fundazioaren laguntzagaz. Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzeko plataforma edo atari digital bat da Urduliz Zabaltzen; Bizkaiko Foru Aldundiaren Biscaytik fundazioak garatu du, administrazio lokalak herritarrengana hurbiltzeko asmoz.

Zabaltzen plataformari esker, urduliztarrek Udalaren kudeaketaren gaineko datuak kontsulta ditzakete, Interneti konektatuta dagoen edozein gailutatik. Auzotarrek errazago kontsultatu ahal izango dute Udalaren inguruko informazioa, beste arlo batzuetako doku-

mentazioagaz batera: lurralde-antolamendua, kontratuak, hitzarmenak eta diru-laguntzak, eta udalerrian indarrean dagoen araudia, besteak beste.

Arduradunek azaldu dutenez, eredu bat da Zabaltzen, eta teknologiak herritarren eta administrazio lokalaren zerbitzura zelan ipin daitezkeen erakusten du. BiscayTIK fundazioak tresna hori lantzen jarraitzeko asmoa dauka, funtzionaltasun gehiago eta hobeak eransteko, eta administrazio lokalaren gobernu ireki eta integraleko zerbitzua izan dadin.

Atari horregaz, erantzun gura diote gizarteak parte hartzeko egiten duen eskaerari; era berean, tokiko administrazioei legedia betetzen lagundu gura die. Izan ere, gizarteak gero eta sarriago eskatzen du administrazioa gardena izan dadin, eta legezko eskakizuna ere bada, legea onartu zenetik. ◀

info+: www.zabaltzen.urduliz.eu

Siriako errefuxiatuentzako 2.300 euro batu dituzte

Urduliztarrek bere alderik solidarioena agertu zuten, joan den urriaren 24an eta 25ean egindako azokaren bitartez. Izan ere, ekimen horri esker, ia 2.300 euro bildu zituzten, eta oraintsu jakinarazi dute, Gurutze Goriaren bitartez helaraziko dietela Siriako errefuxiatuei.

Azoka solidarioaren ekimena Urdulizko emakume-talde batek bultzatu zuen, Siriako errefuxiatuek bizi duten egoera gogorraren aurrean zerbait egin behar zutela uste baitzuten. Horrenbestez, ideia aurkeztu eta Udalak Iparralde kiroldegia utzi zien dohainik, han egiteko azoka. Horretarako,

oso prezio merkean saldu ziren herritarrek emandako produktuak, berbarako: liburuak, jostailuak, altzariak, etxeko tresneria, makineria, arropa eta apaingarriak. Saldu barik geratutako produktu guztiak Caritas erakundeari eman dizkiete, beharrezana duten lagunei eman diezaien.

Bestelako jarduerak

Salmentez gainera, egun horietan, azokan bestelako jarduerak ere egon ziren: trikiti musikaren emanaldiak edo umorezko irakurketa dramatizatuak (Getxoko Itxartu antzerki-taldeak antolatuta), besteak beste. ◀

Berango

Gurata isiotu zutela uste dute



Suteak Berango, Sopela eta Urdulizko 200 hektarea inguru kiskali zituen. ANDRES MIGUEZ

Berangoko sutea «nahita» eragindakoa zela susmatzen du Ertzaintzak; teknikariek jatorri naturala baztertu dute.

Iragan abenduaren 27an Berangon isiotu eta 200 hektarea inguru kiskali zituen sutea ikertzen dabil Ertzaintza, «nahita eragindakoa» izan zela susmatzen baitu; hala azaldu du Elena Unzueta Bizkaiko Iraunkortasun eta Ingurugiro sailburuak. Izan ere, teknikariek baztertu egin dute jatorri naturala (tximistaren bat) edo norbaiten utzikeriaren ondorioa izatea. Halaber, kiskalitako ia eremu guztia jabetza pribatukoa dela jakinarazi du Unzuetak. Era berean, martxoan eta apirilean baso-suteen prebentziarako jarduerak egiteko laguntza-deialdi bat egitea aurreikusi du Bizkaiko Foru Aldundiak. Laguntzen hartzailak baso-ugazaba pribatuak, baso-ja-

been elkarteak eta udalak izango dira; helburua hainbat jardueramota egitea izango da, berbarako: baso-suteen defentsa eta prebentziarako azpiegiturak ipintzea, eta ur-hornidurarako puntuak jartzea.

Itsas Lehorra Bizirik plataforma

Sutea amatatzen lagundu zuten hainbat auzotarrek Itsas Lehorra Bizirik plataforma sortu dute, «gure eskualdearen ingurumena babestearren». Hala, su-itzalketan parte hartu zuten boluntario eta profesionalen lana eskertu zein balioetsi eta proposamenak egiteaz gain, hainbat kontu salatu gura izan dituzte, esaterako agintariek «ez diotela ezelako jaramonik» egiten basoen gutxieneko zainketa-lana batera egiteari, murrizketa politikek eragina izan dutela segurtasun-zerbitzuetan, boluntarioei ez zitzaizela ez arretarik ezta koordinaziorik eskaini, eta eskualdean baliabide gutxi daudela. ◀

Txirlora-Acadae antzerki-taldea, berriro oholtza gainean

Berangoko Txirlora-Acadae antzerki-taldea oholtzaratuko du Iker Ibañezek sortu eta idatzitako *Las estrellas también brillan en otoño* tragi-komedia, urtarrilaren 16an, zapatuan, Berango Antzokian. Hitzordua arrastiko 19:00etan ipini dute, eta Fernando Ansoleaga zuzendariak gidatutako obragaz gozatzeko egundoko aukera izango dute antzerkizaleek, euro baten truke. Tragikomedia horretan, ku-

pletista batzuek antzokiaren ugazabaren aurrean antzeztu beharko dute, antzokia ixteko asmoa dauka-eta.

Hala, iragan maiatzeko Antzerki Amateurren Jaialdian taularatutako lana berreskuratu eta berangoztar eta inguruko auzotar guztien aurrean aurkeztuko dute berriro ere Txirlora-Acadae antzerki taldeko gizon-emakumeek. ◀

info+: www.berango.net

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: billao@limpiezasvillar.com

TXIBERRI edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Plentzia

«Zirkua lan normaltzat jotzen dute Frantzian»

Ilusioa galdu barik, lan eginez «ametsak lor daitezkeela» ikasi du Izaskun Rueda Sancho (Gasteiz, 1983) zirku-artistak, eta mezu hori helarazi gura du bere ikuskizunetan.



Mundu osoan zirku-arten formakuntza jaso du Izaskun Rueda gasteiztarrak.

IKER RINCON MORENO ▶

Ia bitzita osoa daroa zirku-artista gasteiztarrak umeakaz lanean. Plentziara bizitzera etorri da orain, eta daborduko udalerriko neska-mutilei zirkuaren mundua ezagutarazteko ikastaroa ipini du martxan, Plentziako eskolan, barikuetan, 17:00etatik 18:30era.

Zer da zirkua zuretzat?

Zirkuak gauza asko eman dizkit: pertseberantzia, nigan konfiantza eta hobetzeko grina. Gainera, hori guztia egunerokora eramateko aukera ematen dizu. Ametsak jarraitzen dituen pertsona naiz, eta gauza batek ezinezkoa dirudienean, saiatuz gero lor daitezkeela ikusi dut. Ilusioa galdu barik, lan eginez gauza daitezke ametsak, eta hori da umei ikuskizunetan helarazten didan mezua.

Umeentzako zirku-tailerra abiatu duzu Plentzian. Zer ikasiko dute bertarazten diren umeek?

Tailer honen helburu nagusia zirku-modalitate ezberdinak, esaterako malabarrak, oreka eta akrobaziak jorratuz, haurrak zirkuaren mundura hurbiltzea da. Behin oinarri horiek hartuta, sortze-prozesu batean sartu ahal izango dira, eta tailer amaierara-

ko, zirku txikiko ikuskizun bat sortuko dute. Aurpegi margotzea, jantzigintza, antzerkia, clown eta dantza ere irakatsiko dizkiet, besteak beste.

Zein abantaila ditu zirkuak umeen heziketan?

Zirkuaren inguruko jarduerak kontzentrazioa, pertseberantzia, seriotasuna, diziplina, alaitasuna, karisma eta lan egiteko gogoak suspertzen ditu. Horrez gain, gure gorputza era ezohikoan erabiltzeak geure buruarenganako konfiantza areagotzen du.

Zirku-eskolak emateaz gainera, zirku-konpainia batean ere bazabiltza: Zirkun Zirko Konpainia. Zelakoa izan da horren ibilbidea azken urteotan?

Zirkun Zirko Konpainia 2009an sortu genuen Gasteizen. Hiru ikuskizun sortu ditugu bertan: *Tina*, *Ilusioaren doina*, eta hilabete honetan estreinatu dugun *Bidaibizitzen*. Hiru ikuskizunak hurrei begirakoak dira, eta txotxongiloak eta zirku nahasten dituzte. Euren 40 edo 50 ikuskizun eman ditugu Euskal Herrian.

Formakuntza handia jaso duzu zirkuaren munduan sartzeko, ezta?

Zirku Arteen Formakuntza Profesionala ikasi nuen Madrileko Zirku Eskolan. Hiru urtez egon naiz han, eta bertan

denetarik ikasi nuen, nutrizioa, dantza eta antzerkia barne. Bigarren urteetik aurrera, berriz, espezialitate bat aukeratu beharra dago, karrera batean bezala. Ni bertikaletan espezializatu nintzen, hau da, estrukturetan eskuekin orekak egitea. Ondoren, ikastaro osagarriak ere jaso ditut, European zein Hego Amerikan.

Zein egoera bizi du zirkuaren munduak gaur egun Euskal Herrian?

Nik uste dut orain bultzada jasotzen ari dela zirkuak. Hasi dira konpainia garrantzitsuak eratzen, eta hasi dira jada antzokietan ere parte hartzen. Nik uste dut orain lehen baino hobeto dagoela; garai berrietara moldatu da.

Zirkuaren etorkizuna zer-zelakoa izango da zure ustez?

Positiboa, gero eta fama hobetuz hartzen ari gara. Lehen, jendeak ez zuen informaziorik mundu honen inguruan. Berbarako, gurasoei zirku-artistak baten ikasketak nolakoak diren azaltzen didanean, txundituta gelditzen dira. Zabaltzen ari da, eta horrek hasteko aukera bat ematen digu. Frantzian, adibidez, zirku lan normal moduan katalogatuta dute, laguntzak dituzte... Gurean, baina, badirudi zirkuak ez dela existitzen... ◀

info+: www.zirkunzirkotaldea.tk

Gastu-kontrolako politikak aurrezkiak eragin ditu Udalean

Plentziako Gobernu-taldearen gastu-kontrolako politikari jarraituz, Udalak 1.042 euro aurrezkiak fotokopien kontsumoan. Aurretik ere, 24.000 euro aurrezteko lortu zuen energia-arloan.

Udal iturriek azaldu dutenez, kopiak egiteko 11 ekipo eta agiriak suntsitzeko 2 makina daude alokatuta. Alkatezara iritsi, eta handik gutxira amaitu zen 3 ekiporen kontratua. Hala, eskaintza desberdinak aztertu ostean, hiru ekipo horientzako kontratu berria sinatu eta bost hilabetera %57 aurrezkiak fotokopien fakturan (1.824 eurotik 782 eurora jaitsita). Aurrezkiak dutenez, kontratu berriak itxiko dituzte gainerako 8 ekipoak, fakturaren %50 aurrezteko, urtean. ◀

Portuko amarratzeak esleitzeko prozedura mantendu gura dute



Eusko Legebiltzarreko EH Bildu taldeko Marian Beitialarrangoitiak portuko amarratzeak esleitzeko prozedurari lotutako epaiaren inguruko hainbat galdera egin dizkio Ana Oregi Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuari. Izan ere, R. B. jaunak 2014ko martxoan salaketa jarri zuen urte bereko sail horren ebazpenaren inguruan, amarratzei lotuta baitago. Bada, orain, berriz, salaketa horrek egindako bide judizialak epaia ekarri du. Hala ere, Oregiren arabera, epai horrek «ez du inolako eraginik» izango, «administrazioaren jarduerak legezketasun-printzipioa betetzen jarraituko du». Era berean, salaketa aurrezteko emandako argudioak ontzat eman arren, ez da salaketa onartu eta sailaren ebazpena mantendu da. Horren aurrean, sailburuak azaldu duenez, auzi-errekurtsoaren asmoa ebazpena baliogabetzat jotzea zen, «baina ezetsi egin da». Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 3. artikulua ezartzen du administrazioak interes orokorraren alde egin behar duela, objektiboki. ◀



Sarririk Borobiara

PAUL
BILBAO SARRIA
Kontseiluko Idazkari Nagusia

Herri-mugimenduaren lana ezbaian

Egunotan twitter sareetan EAEko politikari garrantzitsu batek esandakoek zeresan handia sortu dute, izan ere, herri-mugimenduek Katalunian alderdien sistema baldintzatzea arriskutsutzat jo zuten.

Bitxia iruditu zait oso horrelako baieztapen zurruna irakurri izanak. Eta bi ikuspegitatik egin zait bitxia. Batetik, herri-mugimenduak berezko duelako politika sistema baldintzatzea, eta horixe da, hain zuzen ere, herri-gintzaren ekarpen nagusienetako bat. Herrigintzari, herri-mugimenduari, esker lortu dira gure herrian eta beste hainbat herritan eskubideen bermerako politika eragingarriak abian jartzea; herri-mugimendua akuilu izan da instituzioek eta alderdiek beren jarre-arak alda ditzaten, eta lan esker-gera horri esker politiketan aldaketa errealek ematea lortu izan da. Hartara, neuk ez dut arriskutsutzat jotzen herri-mugimenduek alderdien sistema baldintzatzea; aitzitik, inoiz baino beharrezkoa iruditzen zait eraldaketarako urratsak sortuko dituen herri-mugimendu indartsua.

Bestalde, oso bitxia iruditzen zait gizartearen antolaketa edota ordezkari-za guztia alderdi edota instituzioetara mugatzea. Uste dut gizarte aberatsa dugula eta gizarte horretan esparru desberdinak ditugula, guztiak aski baliagarriak. Bai, instituzioak ere badaude, eta, bai, instituzioetan politikariek ordezkatzeko dituzte herritarrek. Halere, herritarrek badute instituzioez haratago lan egiterik eta antolatzerik, eta horixe ditugu herri-mugimenduak.

Herri-mugimendua eta instituzioak, biak ala biak dira beharrezkoak, eta ahal dela konplizitatean lan egin beharko lukete, helburu berdinerira iritsiko badira. Dena dela, inork ez dezala pentsa konplizitate egon ezean, herri-mugimendua gelditu geratuko denik. Ez, horixe! ◀

Gorliz

Martxa nordikoa, gin-tonic eta argazkilaritza tailerrak, prest

Gorlizko auzotarrek hainbat jardueraz gozatu ahal izango dute egunotan, udalerrian. Hasteko, hilaren 17an, domekan, gero eta jarraitzaile gehiago dituen martxa nordikoko ikastaro aurreratua antolatu dute. Kirol horretan sakondu gura duten guztiek Sertutxena udal eraikinera hurbildu beharko dute egun horretan, 10:00etan. Saioak eguerdiko 12:30era arte iraungo du. Horretan parte hartu gura dutenek alde aurretik izena eman beharko dute; horretarako, Turismo Bulegora jo beharko dute.

Kirola alde batera utzita, gin-tonic konbinatuaren zaleek hitzordu berezia izango dute hilaren 22an, barikuan. Egun horretan, gina eta tonika nahastuz koktel ezberdinak prestatzen ikasteko tailerra egingo dute. Hitzordua 19:30ean ipini dute, udalerriko LightHouse tabernan. Interesdunek alde aurretik izena eman beharko dute izena Turismo Bulegoan. Gorliz,



Lemoiz eta Plentzian erroldatutakoek 13,5 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, berriz, 15 euro.

Amaitzeko, azkenengo hitzordua udalerriko neska-mutil txikienei begirakoa izango da. Otsailean, 8 eta 12 urte arteko umeentzako argazkilaritza-ikastaroa abiatuko dute; apirilera arte iraungo du. Horretan parte hartu nahi dutenek hilaren 25era arte izena eman ahal izango dute, kultur etxean. Ikastaro honetako eskolak zapatuetan izango dira, 16:30etik 18:30era. ◀

Eskualdea

Haur segurtasunaren ziurtagiri gorenaren lortu dute hiru zentrok

Espainiako Haur Segurtasunaren Elkarteak S+ ziurtagiria eman die Astrabuduko Teddies eta Algortako Koala haur-eskolei eta Leioako Umeak Fundazioa haurzaindegiari. Ziurtagiria jaso duten haur-eskolek «Istripuen prebentzioa 0 eta 3 urte bitarteko haurren zentroetan» izeneko prestakuntza

espezifikoa jaso dute, baita espazioak egokitzeko aholkularitza pertsonalizatua ere.

Haur Segurtasunaren Elkartearen helburu nagusia umeen lesioak murrizteko prebentzio-konzeptuen inguruan gizarte kontzientziatzeko ekintzak sortzea da. ◀



HIRUKA Kooperatiba Elkarteak goi-mailako urrezko BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria jaso du Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik; Uribe Kostan, Osakidetza Urubeko Erakunde Sanitario Integratuak ere ziurtagiria lortu du, zilarrezkoa. GOIENA

Lemoiz

Udalak 18.000 euro inbertitu ditu eskola hobetzeko

Lemoizko Udalak 18.000 euro inbertitu ditu herriko eskolaren teilatua hobetzeko. Hala, lan horietan estalki zaharra kendu, teilatua berdindu, ura batzeko aurreko sistema ezeztatu, eta teila berriak ipini dituzte. Azkenik, erretan eta aluminiozko zorrotan berriak ere jarri dituzte, ura batzeko sistema berria egiteko.

Inbertsio horregaz, Udalak udalerriko hezkuntzarako azpiegiturak hobetzeko konpromisoari eutsi, eta hauteskundeetan emandako hitza bete du: «Gobernu-taldearen helburua eskola hartzen duen eraikina egoera hobezinean egotea da, udalerrian kalitatezko azpiegiturak egoteagaz batera», azpimarratu du Unai Andraka Lemoizko alkateak. Aipatutako lanak Udalaren etorkizunerako planen artean kokatuta dagoela gaineratu du agintariak: «eskola garatzen jarraituko dugu, Lemoizko etorkizuneko beharrezko oinarria delako». ◀

Unibertsitatea

Aurrekontua %1,56 igotzea proposatu du EHUK 2016ra begira

EHUK 2016ko aurrekontuen aurreproiektua aurkeztu du, 402.757.095 eurokoa. 2015ean onartu zena, berriz, 396.557.681 eurokoa izan zen; horrenbestez, % 1,56 igo da. Zenbateko horretan, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretatik 396.557.681 euro datoz, hau da, aurrekontuen %76,44. Atala honela banakatzen da: ekarpen arrunta (276.359.872 euro), programa-kontratuak (31.041.223 euro) eta hainbat urterako inbertsio-plana (500.000 euro). Aurrekontu orokorretatik datorren ekarpenagaz batera, beste sarrera batzuk daude: eskubide publiko edo pribatuetakoak (94.400.000 euro). Horrez gainera, EHUK 456.000 euro eskuratuko ditu Gizarte Kontseilurako. Behin betiko proiektua otsailean aurkeztuko dute.

Guztira, 20 ikastegi izango ditu

EHUK 20 ikastegitan (fakultateak eta eskolak) batu ditu hiru campusetan zituen 32 ikastegiak, antolakuntzaren egitura «nabarmen erraztuta» eta unibertsitatearen eredia «optimizatu-ta», euren berben arabera. Azpimarratu dutenez, berrantolaketa horrek ez dio eragin unibertsitateko ikasketen eskaintzari, berdin iraungo baitu eskaintzak. ◀



Glu Glu taldeak *Txanogorritxo* haur-antzezlan eskainiko du otsailaren 6an. © SOPELAKO UDALA

Hurrengo ekitaldiak

Urtarrilak 15, barikua

20:00 *Malmö* (Khea Ziater) film eszenikoa. Euskaraz. Sarrera: 5 euro.

Urtarrilak 16, zapatua

20:00 Elliott Murphy rock abeslariaren kontzertua. Sarrera: 10 euro.

Urtarrilak 22, barikua

20:00 *Yakambú* (Dairi Brown) Kubako dantza-ikuskizuna. Sarrera: 8 euro.

Urtarrilak 23, zapatua

20:00 *Fenix 11*23* filma. Zinema eta Giza Eskubideak zikloaren barruan. Katalanez, euskarazko azpigituluakaz. Sarrera, doan.

Urtarrilak 24, domeka

18:00 *El lagarto baila* (2x4) umeentzako dantza-ikuskizuna. Sarrera: 3 euro / 5 euro.

Urtarrilak 30, zapatua

20:00 *Zerura eroria* (Anodino) antzezlanaren estreinaldia. Euskaraz. Sarrera: 3 euro.

info+: www.sopelaudala.org

Kurtzio, ekitaldiz gainezka!

Musika, dantza eta antzerkiaz goatzeko aukera egongo da. Horrez gainera, giza eskubideak jorratuko dituzte hilabete behin, zinema-ziklo baten bitartez.

Sopelako Kurtzio Kultur Etxearen programazioa indartsu hasiko da 2016an; denak asetzeko modukoa izango da. Artista ezagunak eta ez horren ezagunak, bertokoak eta kanpokoak, askotariko diziplinak... ekitaldi denak izango dira kalitate handikoak. Besteak beste, Elliott Murphy rock musikaren mitoak bisitatuko du Kurtzio zapatu honetan, urtarrilak 16. New Yorkeko kantagilea

Parisen bizi da, eta urte hasierako bitan, Sopelan dauka hitzordua. Gibelurdiñek, Karla Imbert, The Great Barrier eta Maria Barasarte ere izango dira hilabeteotako musika-egitarauaren osagarriak.

Ramon Barea eta Itziar Lazkano euskal antzerkiaren aurpeirik eza-gunenetarikoez ere zapalduko dute oholtza sopeloztarra. *Hoy, ultima funcion* antzezlan taularatuko dute: kla-

siko bihurtu da euskal eszenan, eta Sopelan ere, aukera egongo da lan hunkigarri horregaz goatzeko. Hala ere, otsailaren 13ra arte itxaron behar dute Barea eta Lazkano ikusi gura dituztenek. Askoz lehenago, bariku

Zerutik eroria antzezlan estreinatuko du urtarrilaren 30ean Anodino taldeak

honetan, urtarrilak 15, *Malmö* film eszenikoa eskainiko du Khea Ziater tal-

deak. Bitartean, umeek kalitate handiko antzezlanak edukiko dituzte: *El lagarto baila*, Madrilgo 2x4 konpainiaren lana; *Txanogorritxo* ipuinaren moldaketa berri bat; *Printzesak eta futbolariak*, genero-ikuspegitik sortutako antzerkia; eta *Alabatxoa* izeneko antzezlan, sari nabarmenak eskuratu dituenak.

Azkenik, urtarrilaren 22an, Kubako dantza ikusgarriak erakutsiko ditu *Yakambú* ikuskizunak. Zazpigarren artea berbagai, bost hilabete bost film emango dituzte, jatorrizko bertsoan eta euskarazko azpigituluakaz, Zinema eta Giza Eskubideak zikloan. ◀

Bertso Egunera joateko autobusa, Algortatik

Urtarrilaren 30ean izango da 2016ko Bertso Eguna, Donostian. Horren harira, Bizkaiko Bertsozale Elkarteak, ohikoa den legez, joateko autobusa antolatu du; Algortan, Bidezabal metro-geltokian hartu ahal izango da, 10:00etan. Aurretan ere, eguerdirako joango da autobusa, eta ekitaldiaren osteko afariaren ondoren egongo da bueltakoa. Saiorako eta afarirako sarrerak erosteko Bertsozaleak.eus atarira jo behar dute bertsozaleek. «Aurten, sarreren erosketa bakoitzaren kontura izango da», ohartarazi dute antolatzaileek. Autobusean izena emateko azken eguna urtarrilaren 24a izango da. ◀

Egitaraua

Bertso Eguna, Donostian

12:00 Alde zaharrean, hasiera (bazkaria, bakoitzaren kontura).

18:00 Ekitaldi nagusia, Kursaal. Ostean, afaria eta jai Kursaal bertan.

sarrerak: www.bertsozaleak.eus

Autobusaren ordutegia

10:00 Algorta. Bidezabal metro-geltokian.

01:30 Buelako autobusa aterako da.

Azken eguna: urtarrilak 24, domeka.

Autobusaren prezioa 13 eurokoa izango da, joan-etorria eginez gero; joan ala etorria bakarrik eginda, 10 euro balioko du. Autobusean bertan ordainduko da.

izen-ematea: bizkaia@bertsozale.eus

Mihiluze lehiaketa egiten dabilta gure eskualdean

Urtarrilaren 29an Uribe Kostako Mihiluze txapelketako sailkapen-ekitaldia egingo dute Urdulizko kultur etxean, 18:00etan. Finala, osteran, otsailaren 5ean izango da, 18:00etan, Sopelako Kurtzio kultur etxean. Hainbat ikastetxetako LHko 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako gazte-txoez euskal kultura (euskal abestiak, ohiturak...) eta ondarea ikasteko aukera eduki dute; sailkapen-ekitaldian ikasitakoa eta landutakoa erakutsi ahal izango dute. 70-80 bikotek eman dute izena, Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatutako lehiaketan. ◀

info+: mihiluzeuribekosta.com

Behategia sortzen lagunduko dute unibertsitateek

Eguen honetan, urtarrilak 14, Euskal Hedabideen Behategia sortu eta garatzeko oinarriko hitzarmena izenpetuko dute Hekimenek, EHU Euskal Herriko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak. Ekitaldia 11:00etan izango da, EHUren Bizkaia Aretoan, Bilbon. Hekimenek sorreratit dituen helburu eta egitasmo garrantzitsuenetarikoak da Euskal Hedabideen Behategia. «Egungo errealitatea zein den jakiteko ez ezik, hurrengo urteetan euskal hedabideek egin behar dituzten urratsak irudikatzen ere lagunduko digun tresna da», komunikabideen ordezkariak diotenez. ◀

hirukagenda

Uribe Kostako astekarria

2016ko urtarrilaren 14tik urtarrilaren 20ra arte



hiruka.eus



Sopelan ere emango du kontzertua The Great Barrier taldeak, Karla Imbert abeslariagaz, otsailaren 19an. © THE GREAT BARRIER

ITZUBALTZETA/ROMO

The Great Barrier taldea, Getxo Live! ekimenean

Eguen honetan, urtarrilak 14, Itzubaltzeta/Romoko Anaiak (Billares) tabernan kontzertua emango du The Great Barrier folk-rock taldeak; Getxo Zuzenean ekimenaren barruan joko du Uribe Kosta eskualdeko seikoteak. Saioa 20:00etan hasiko da; sarrera, doan. 2012an, Bilbo Hiria Pop Rock lehiaketa irabazi zuen The Great Barrier bandak; bi urte eta erdi geroago,

2015eko uda aurretik, *Winter Greetings* You lehen diskoa atera zuen. Indie pop, rock eta folk doinuak batzen ditu lan horrek. Taldearen eraginen artean, Calexico, Low eta Belle & Sebastian daude.

Getxo Zuzenean edo Getxo Live! ekimena bertoko musika-taldeentzako kontzertu-zirkuitua da; horri esker, bandek euren lana publikoan

ri zuzenean erakusteko aukera dute, Getxoko Kultur Etxeko arduradunek azaldu dutenez. Urtarrilean, lau saio egongo dira, Algorta eta Itzubaltzeta-ko tabernetan; lehenengo emanaldia urtarrilaren 7an izan zen The Piper's tabernan, eta Bea's Beat Jazz bandak eskaini zuen zuzunekoak. Hilaren zuean, berriz, Pedro Makay (pop) egongo da Algortako Jolas Aurrean. ◀

LEIOA

Kultur Leioan joko du Cromatica Pistona talde madrildarrak

Madrilgo Cromatica Pistona taldeak kontzertua eskainiko du bariku honetan, urtarrilak 15, Kultur Leioan. Saioa 21:00etan hasiko da; eta sarrerak 8 euroan egongo dira. 2013ko Leioako XIII. Pop Rock Lehiaketako lehenengo saria lortu zuen Cromatica Pistonak. Hainbat kontzertu-areto eta jaialditatik ibili ostean, 2015eko apirilean argitaratu zuen bere bigarren lana: *Casta brava*, kolaborazio interesgarriak dituen. Errepertorio originala dauka lan horrek: jai izaera dauka, eta abestiak gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta italieraz kantatzen dituzte. Estilo ugari jorratzen ditu taldeak. ◀



© CROMATICA-PISTONA

2016/01/12 - 19:30-21:00

Argazkilaritza-eskola: *Kritika eraikitzailea*

Atxutegi kalea, 15 (Astrabudua) | Erandio
Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Bertaratutakoan argazkiak iruzkinduko dituzte. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/01/13 - 19:00

Versadas olerki-kluba Algortako kultur etxea | Getxo



SOPELA

Elliott Murphy entzungai, Kurtzion

Elliott Murphy (Rockville Centre, New Yorkeko estatua; 1949) rock musikaren mito estatubatuarrek Kurtzio kultur etxea bisitatuko du zapatu honetan, urtarrilak 16. Kontzertua 20:00etan hasiko da; sarrerak agortu egin dira. New Yorkeko kantagilea Parisen bizi da, eta urte hasierako biran, Sopelan dauka hitzordua. Olivier Durand gitarrajoleagaz batera igoko da oholtzara, eta bere 40 urteko ibilaldiaren kanturik nabarmenenak kantatuko ditu. Euskal Herrian sarritan eskaini ditu saioak. ◀

2016/01/17 - 08:00

Argazkilaritza-irteera

Astrabuduko taxien geralekua | Erandio
Kantabriako Sonabia eta Mioño herrietara. Informazioa: kultura@erandioko-udala.net

2016/01/17 - 10:00-12:30

Martxa nordikoko ikastaroa

Sertuxena kultur etxea | Gortiz
Ikastaro aurreratua izango da. Izen-ematea, turismo-bulegoan. Doan.

GORLIZ

Ipuinak, ingelesez kontatutako dituzte

Zapatu honetan, hilak 16, ingelesezko ipuinak kontatuko dizkie Cataplinak 4 urtetik gorako umeei, Sertutxenan. Hiltzordua 18:30ean ipini dute, eta garaiz heltzea beharrezkoa da, ateak 18:40ean itxiko dituzte-eta. Sarrera, doan. ◀

BARRIKA

Mozorroak prestatuko dituzte neska-mutilek

Daborduko, aratusteak prestatzen dabilta liburutegian; eguaztenean, urtarrilak 20, mozorroak egiteko aukera edukiko dute 6 eta 12 urte arteko neska-mutilek. Jarduera 17:30ean hasiko da; aurretik izena ematea eskatu dute. ◀

LEMOIZ

Etxandarri taldearen bigarren txangoa

Euskaraz dakiten 5 eta 14 urte arteko neska-mutilentzako mendi-taldea sortu berri dute Lemoizen. Bigarren irteera hilaren 24an egingo dute. Bakio aldera; Gaztelugatxe ere bisitatuko dute. ◀

info+**688 602 121** (Marian)



Khea Ziaterek Bilboko Arriaga antzokian estreinatu zuen *Malmö* antzezlana, urtarriaren 13an. © KHEA ZIATER

Malmö antzezlana, euskaraz, Sopelan

Lagun biren arteko traizioa eta mendekua dira Khea Ziater taldearen film eszeniko berriaren muina. Orain dela bost urte ezagutu zuten elkar Claudiak eta Sagak; euren bizitzako hiru urte zoroenak elkarrengaz pasa zituzten. Baina hautesiezina zirudien harreman hori zerbaitek apurtu zuen... ◀

Noiz: Urtarrilak 15, barikua.

Ordua: 20:00

Non: Kurtzio kultur etxea.

Sarrera: 5 euro.

Gabriela Mistralen olerkiak aukeratu dituzte. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/01/14 - 18:00

No llores, vuela filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Izartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/01/14 - 19:30

El puerto de Bilbao berbaldia

Algortako kultur etxea | Getxo
Mugabarik elkarteak antolatuta. Jose Maria Navajas historialariagaz. Gaztelaniaz. Doan.

2016/01/15 - 19:00

Kontularien Kluba

Algortako kultur etxea | Getxo
Gaia: arropa zuzena izan. Gaztelaniaz. Doan.

2016/01/15 - 19:00

Kantu-jira, Plentzian

Baseliza | Plentzia
Plentziako Kantaguneak antolatuta. Entsegua egin ostean, 20:30ean Alde Zaharretik ibiliko dira. Parte-hartzea, libre.

2016/01/15 - 19:30

Astrabuduko Jai Batzordearen batzar irekia

Josu Murueta kultur etxea | Erandio
San Lorenzo jaiak antolatzeko, herritarren laguntza behar dute.

2016/01/15 - 21:00

Mommy filma eta berbaldia

Areetako musika-eskola | Getxo
Frantsesez, gaztelaniazko azpituiluakaz. Sarrera: 2,90 euro.

2016/01/16 - 19:00

Las estrellas tambien brillan en otoño antzezlana

Berango Antzokia | Berango
Berangoko Txirlora-ACADAE antzerki-taldeagaz. Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 1 euro.

2016/01/16 - 20:00

Umore-bakarriketak: Jose

Andres eta Jorge Segura

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Encomendados zirkuituaren barruan. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/01/16 - 20:15

Ocho apellidos catalanes

umorezko filma

Kultur etxea | Urduliz
Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

2016/01/17 - 13:30

Kalezuloko auziperatuakaz, elkartasun-argazkia

Jado eta Ibarra kaleen artean | Erandio
Urtarrilaren 18an Erandioko gazte bi epaituko dituzte Bilbon, usurpazio-delitua egotzita.

2016/01/17 - 17:00

Los Minions animazio-filma

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/01/17 - 17:00

Pinocho y su amiga Coco filma

Areetako musika-eskola | Getxo

Denentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,10 euro.

2016/01/17 - 18:00

La leyenda del martillo. Thor animazio-filma

Berango Antzokia | Berango
Umentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/01/17 - 19:00

Un dia perfecto filma

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/01/19 - 19:00

Irakurle-kluba

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Mikel Santiagoren *La ultima noche en Tremore Beach* liburua aukeratu dute. Gaztelaniaz. Doan.

2016/01/19 - 19:00

El ciego de Olabe liburuaren aurkezpena

Algortako kultur etxea | Getxo

Liburuaren egile Pedro Zarrabeitiak parte hartuko du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/01/19 - 19:30

Kultura eta berrikuntza. Erabakitze

eskubidea izenburuko berbaldia

Areetako musika-eskola | Getxo

Lehendakari Agirre Center eta Gure Esku Dago erakundeek antolatuta. Hizlariak: Juan Jose Ibarretxe, Angel Oiarbide, Pako Letamendia eta Rozio Luces. Euskaraz eta gaztelaniaz. Doan.

2016/01/19 - 19:30-21:00

Argazkilaritza-eskola: Zure ekipoa ezagutu

Axutegi kalea, 15 (Astrabudia) | Erandio
Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Astequnetan
10:00-13:30 / 16:00-21:00
Zapatuetan
09:30-14:00

Urdulizen

argihizkiak.com

argihizkiak

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN IV. LEHIAKETAREN
ERAKUSKETA

Urtarrilaren 18tik 31ra
Urdulizko kultur etxean

egizki!



hiruka

Emakumeen begirada ekimenaren izen-ematea zabalik dago Plentzian



Lan guztiak Goñi Portalen egongo dira ikusgai, martxoan. PLENTZIako KULTUR ETXEA

Otsailaren 22ra arte eman daiteke izena erakusketan parte hartzeko. Lanak martxoaren 7tik 22ra egongo dira ikusgai.

Plentziako Udaleko Kultura eta Berdintasun Sailak *Emakumeen Begirada* erakusketa antolatuko du laugarrenez. Ekimenaren helburua da ikusizko arteetan (margoak, marrazkiak, grabatuak, argazkiak, etab.) adituak diren artisten lanak ezagutzera ematea, eta emakumea gaitzat hartuta Goñi Portalen horien talde-erakusketa antolatzeta. Hala, parte hartu gura dutenek euren lanak aurkez ditzakete; izena emateko epea otsailaren 22an amaituko da. Erakusketa hori martxoaren 8an ospatuko den Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitako jardueren barruan aurkeztu du Udalak. Erakusketaren bidez, «emakumeak» gaia hartuta, hainbat artistak egindako margolan edota argazki-lanen erakustaldi kolektiboa bultzatu eta sustatu gura dute. Sexu arrazoiengatik sortzen

diren «bazterketari» lotutako kontzeptu eta estereotipoak aldatu edo horien gaineko gogoetari bide ematea gura duen sormena bultzatu nahi dute antolatzaileek; «laburbilduz, parte-hartze eremu horren bitartez, hausnarke-ta, elkarrizketa eta espresioa lantzea bilatzen da», azaldu dute arduradunek. Aurkeztutako obra denak martxoaren 7tik 21era bitartean ikusgai egongo dira Goñi Portalen.

Zelan parte hartu

Erakusketan parte hartzeko, hiru modu sailkatu dituzte: argazkilaritza, margolaritza eta marrazkilaritza. Horietakoren batean parte hartzeko, adinez 14 urtetik gorakoa izan beharra dago, eta lanek «emakumeak» gaiaren ingurukoak izan beharko dute.

Formatuari dagokionez, modalitate bakoitzak bata ala bestea izango du; oinarrietan dago zehaztuta jakin beharreko guztia. Parte-hartzaileek gehienez artelan bi aurkeztu ahal izango dituzte, modalitate bakoitzean. Xehetasun gehiago jakiteko Goñi Portalen galdetu beharra dago. ◀

946 775 541 / kultura@plentzia.eus

DeustoBide Herritartasun Eskolaren Getxoko ikastaroetan izena eman daiteke

Deustuko Unibertsitateko Herritartasun Eskolaren ikastaroak antolatu dituzte Getxon bigarren seihilekorako. Guztira, lau ikastaro antolatu dituzte: «Pecado y delito en la Edad Media», «Eguzki erregearen unibertsioa», «Para orientarnos. Arte japonés y japonismo» eta «Escenarios de crisis y conflictos belicos actuales».

Eskolak Algortako Villamonte kultur etxean emango dituzte, arrastiz, otsailaren 9tik edo 11tik aurrera, ikastaroaren arabera.

Horietakoren batean parte hartzeko interesa dutenek hilaren 22a izango dute izena emateko azken aukera, Villamonteko kultur etxean. Getxon erroldatuta daudenek 30 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, berriz, 45 euro.

Antolatzaileek azaldu dutenez, ikastaroetan parte hartzeko leku-kopurua mugatua da. ◀

info+: www.getxo.eus
www.deustobide.deusto.eus

ArgIHizkiak erakusketa Urdulizko kultur etxean, hilaren 18tik 31ra bitartean

Leioa, Getxo eta Berango bisitatu ostean, Urdulizera helduko da ArgIHizkiak Uribe Kostako literatura-lehiaketaren erakusketa. Hala, Uribe Kostako edo bertan bizi diren 10 argazkilariren irudi bana eta horietan oinarritutako euskarazko 20 testu labur onenak ikusi ahal izango dira, hilaren 18tik 31ra bitartean, Urdulizko kultur etxean (Aita Gotzon, 16). Erakusketa bisitatzeko ordutegia honakoa izango da: astegunetan 10:00etatik 13:30era, eta 16:00etatik 21:00etara; eta zapatuetan, 09:30etik 14:00etara.

Lehiaketa Egizu Getxo Euskaldun elkarteak eta HIRUKAk antolatzen dute, Uribe Kostako hainbat udalegatz (Leioa, Berango, Getxo; eta Makomunitatea) eta zenbait elkartegatz (Bizarra Lepoan, Berbots, Aitxu!, Leioako berbalagunak) elkarlanean. Literatur ekimenaren helburuak dira: jendea euskaraz idaztera eta irakurtzera animatzea, eta Uribe Kostako argazkilariak eta euren lana zabaltzea. ◀



Koru-taldeak Getxoko kaleetan barrera ibiliko dira kantatzen. GETXOKO UDALA

Getxoko Agate Deuna Koru Jaialdia, martxan

Agate Deuna ate joka dago. Hori dela eta, urtero legez, Getxoko Udalak Agate Deuna Koru Jaialdiaren XXIX. edizioa antolatu du egun horren bezperarako, otsailaren 4rako, alegia. Horretan parte hartu gura duten taldeek izena eman beharko dute hilaren 21a baino lehen. Taldeek arrastian kantatuko dute, 18:00

eta 21:00 bitartean, gune bitan: lehenengoa, Itzubaltzeta/Romo eta Areeta auzoetan, Xake plazatik abiatuta; eta, bigarrena, Algorta eta Andra Marin, Telletxe plazatik hasita. Hala, Getxoko kaleak tradiziozko kantakaz beteko dira... Hasi sama berotzen! ◀

izen-ematea Algortan: bcasillas@getxo.eus
izen-ematea Areetan: mdelafuente@getxo.eus

«Honen tamainako lanik topatzea zail ikusten dut; aita izatea, NASako zuzendari...»

Xabier Paya Ruiz (Getxo, 1982) bertsolari, itzultzaile, irakasle eta kulturgile algortarrak laster egingo ditu urte bi Donostia 2016ko programaren zuzendari-arduran. Hain zuzen ere, urtarrilaren 18an hasiko dira Europako kultur hiriburutzak ospatzen; hurrengo hilabeteetan, ehunka ekitaldi egongo da Donostian zein bertatik kanpo. Berbarako, Getxon, solasaldiak eta musika-ikasleen topaketa egingo dituzte. Bitartean, sorkuntzarako grina berreskuratuko du Payak; azaroaren 24tik kalean da Patxi Gallego marrazkilariagaz egindako *Nork* komikia.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Zelan heldu da algortar bat Donostia 2016ko kultur programaren zuzendaria izatera?

Europar zehar bide luzea eginda heldu naiz Donostia 2016ko kultur programaren zuzendaria izatera. 2011n, Birmingham-eko (Ingalaterra) Unibertsitateko irakaslea nintzenean, nirekin harremanetan jarri ziren; hiriburutzarako hautagaitza defendatu behar zuten Europako Batzordeko epaimahaiaren aurrean, eta laguntza eskatu zidaten. Donostiara joateko eta egitasmoa aurkeztu behar zuten egunean beraiekin egoteko eskatu zidaten; proiektuaz gain, euskal kultura zer zen azalduko zuen jendea behar zuten, baita ingelesez egin zezakeena ere. Aldi berean, kulturgile sentitzen ziren pertsonak behar zituzten.

Berehala erakarri ninduen Donostia 2016 egitasmoak; elkarrekin bizitzeko, kultura sustatzea zen hasierako ideia nagusia, eta horixe bera da gaur egun mantentzen duguna. Nire bizitzan eta ibilbide profesionalean beti saiatu izan naiz hori egiten: gaztelaniaz kantatu izan dut payadore batekin; bertsoak beste hizkuntza batzuetara itzultzen ahalegindu naiz... zubi-lan hori askotan sentitu izan dut. Niretzat leku polita izan zitekeela pentsatu nuen.

Proiektuan berriro parte hartzeko aukera sortu zenean, ez zenuen alferrik galdu!

Aurkezpena egin ostean, Birminghamera bueltatu nintzen. Ondoren, Pauen eta Baionan ibili nintzen irakasle urtebete, eta bertan nengoela, Donostia 2016ko kultur programaren atal bateko arduraduna

na izateko lehiaketa atera zela ikusi nuen; bereziki, musikan, literaturan, antzerkian eta zineman aditua izan behar zuen horrek. Esango nuke denetan ibilia naizela... Hala, neure burua aurkeztu nuen.

Prozesu oso luzea izan zen; lagunak dauzkat zazpi hilabeteko «haurdunaldia» izan zutenak. «Umea jai» eta gero hasi nintzen lanean. Horrenbestez,

“ Hedabideen eraso bortitza sentitu nuen hasieran. Jendearen aurrean bertsoak egiteari ere utzi egin nion ”

Ahotsen itsasargia izeneko ataleko arduraduna izateko aukeratu ninduten. 2013ko abuztuan hasi nintzen proiektu horretan, baina handik oso gutxira programaren koordinatzaile izateko eskatu zidan zuzendaritza-taldeak; premia handiagoa zegoen.

Hilabete gutxira, programaren zuzendaria zinen.

2014ko apirilaren 1ean Itxiar Nogueras zuzendari orokorrak dimititu zuenean, eta, gerora, gainerako zuzendariak nolabait kaleratu edo eurek alde egin zutenean, Donostia 2016 fundazioko patronatuak (Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eus-

ko Jaurlaritza eta Espainiako Kultura Ministerioa) niri eskatu zidan proiektuaren ardura osoa hartzeko. Sei hilabetez proiektuari eutsiko niola hitzartu nuen; ez dut uste 31 urteko zuzendaririk komeni denik. Orduan ere esan nuen ez genuela behar intuizioz arituko zen pertsona bat; eskarmentuz eta benetako esperientziak jardungo zuen norbait behar genuen. Maila neurekoiagoan, agian, zuzendari on bat nahi nuen nire ondoan, ikasteko aukera emango zidana.

Tratua hori izan zen. Baina seihilabeteko horretan, Bruselak patronatuari eskatu zion ni nire postuan bermatzeko, edozein zela ere zuzendaria, eta hala egin zuten. Kultur programaren zuzendari egin ninduten; horretan egingo ditut laster urte bi.

Orain arte eskuartean eduki duzun proiekturik potoloena izango da, ezta?

Ez dakit zer konparatu daitekeen honekin; Getxoko zenbat jazzaldi kontuan hartu beharko lirakeke honen parera heltzeko? Ez da bakarrik emango duen emaitza, baizik eta suposatzen duen lana: Europako proiektu bat izanda, hiru hilabete behin jarraipena egingo dute Bruselatik; lau erakunde oso ezberdinen arteko adostasunean oinarritzen da... Azken horrek eramaten gaitu askotan gora eta behera; tirabira ugari sortu dira. Izugarri zaila da, baina erronka oso interesgarria da aldi berean.

Batetik, kulturean gaur egun zer inbertitzen den ikusita, aukera handia suposatzen du. Beste arlo batzuetan zenbat gastatzen denarekin konparatuta,



agian ez da horrenbesterako; Abiadura Handiko Trenaren (AHT) 1,5 kilometro eraikitzeke adinekoa da gure aurrekontu osoa. Baina kulturaren, beste gauza batzuetan gastatzen denarekin konparatuta, sekulakoa da gure aurrekontua.

Bestalde, Europako kultur hiriburuak ezagutu izan dituzten lagunetatik gehienek hirien eraldaketa batekin lotzen dute tokian tokiko egitarau kulturala. Adibide oso argia da Marsella (Frantzia); 660 milioi gastatu zituzten portua eta ingurua aldatzen, eta beste 60, egitarauan. Donostian, ordea, erabaki zuten aldaketa ez zela urbanoa izango, soziala baizik. Eraldaketa horrek zerikusi handiagoa eduki behar zuen elkarbizitzarekin, gatazkarekin, erlijioekin, giza eskubideekin, hizkuntzekin... Izugarri ezberdina da!

Culture to overcome violence (Indarkeria gainditzeko kultura) zen proiektuaren izenburua, hura defendatzera joan nintzenez; hiri-marketing-eko estrategia oso ezberdina da hori, ezta? Donostia Europako laborategi bezala hartuta, elkarrekin bizitzen ikasten saiatzeko aukera eskaini nahi du egitasmoak, kulturak eta arteak berezkoak dituzten ezaugarriak baliatuta. Ez da erraza!

Zelan deskribatuko zenuke proiektuak dauzkan tamaina eta zailtasunak?

Zein zaila den adierazteko nik beti esaten dut honen ondoren ez dakidala zertan egingo dudana lan. Askotan aipatzen dut aita izango naizela; pentsatzen dut

hori izan daitekeela munduan dagoen gauzarik antzekoena: zaila, emozionala, bihotzarekin lotua... NASAko zuzendari egitea ere pentsatu dut. Kar, kar. Izan ere, datuak izugarriak dira: ehun proiektu baino gehiago; mila eragile kulturekin gabiltza lanean... Esango nuke Euskal Herrian gaur egun ez dagoela horrela dabilen erakunderik. Master izugarri

“ Hala ere, ezin izan diot nire buruari ukatu sortzeko grina. Nork komikia nire ihesbidea izan da; bizitza eman dit ”

bat izaten ari da niretzat. Gainera, oso gutxi falta da ekitaldiei hasiera emateko.

Noiz hasiko dira ekitaldiak?

Europako Kultur Hiriburutzaren urteari hasiera emateko ekitaldiek urtarrilaren 18tik 24ra iraungo dute, eta hilaren 23ko iluntzean izango da inaugurazioa, ikuskizun masibo batekin. Besteak beste, hilaren 19ko gauean, danborradarekin batera, Hiriburutzak eta herriko jai handiak bat egingo dute ekitaldi berrean. Hala, haurren danborradan konpainia berri bat izango da, eta lehenengo aldiz, beste hiri bateko

neska-mutilek bat egingo dute haurren danborradarekin. 2016an Donostiarekin batera Europako Kultur Hiriburu izango den Poloniako Wroclaw hiriko haurrak izango dira, hain zuzen ere.

Getxora ere heldu da Donostia 2016.

Getxorekin hasieratik eduki genuen harremana proiektu oso zehatz batean; William Shakespeareren *Uda gau bateko ametsa* antzezlanari heldu genionean; ikusi genuen euskaratuta zegoela jada, eta, gainera, nire harridurarako, Bingen Ametzaga algortarrak itzulia, erbestean zela. Paradigmaren apurketa eder bat da: tarteka hain erdaldun senti gaitzkeen herri honetan, pentsatu, duela 75 urte *guaito* bat zegoela Ameriketara aipatutako obra euskarara itzultzen. Algortarra izanda, harro egotekoa da! Elkarrekin argitaratzea erabaki genuen.

Hala ere, beste hainbat gauza egongo dira harremanetan jarriko gaituztenak; adibidez, 2016 Bidea izeneko egitasmoa. Martxoaren 27tik urriaren 30era ibilbide bat egingo dugu Euskal Herrian zehar; igandero etapa bat egingo da, buelta osoa emateko. Gauzak horrela, kostaldetik abiatuko gara Bizkairantz, eta Uribe Kostako herrietatik ere igaroko da.

Nik beti esaten dut artisten kasuan, herritarren kasuan eta lekuen kasuan saiatzen garela lan egiten; deialdi pila bat egin dugu jendeak parte har zezan. Adibidez, Donostiako museotan egonaldi artistikoak sortzeko proiektua abiatu genuen; Realaren museokoa, gaur egun Getxon lan egiten duen Edu Hurtado izeneko artistak irabazi du.

Berbaldi-zikloa ere helduko da gurera, ezta?

Bai. *Erronkak* izeneko egitasmoan, Jakiunderekin adostu genuen bere jakitunek erabaki zezatela zeintzuk diren XXI. mendeko erronka nagusiak. Prozesu hori egin zuten, eta hamar aukeratu. Horiek hartuta, hamar tokitan egun bateko hitzaldi-saio potolo eta interesgarriak antolatu ditugu; hizlari askok parte hartuko dute. Lurralde-antolaketa eta globalizaziorri buruzkoa egingo da Begoñako galerietan, Algortan, irailaren 16an. Ikus daitekeenez, naturaltasunez saiatu gara gauzak lotzen.

Bestalde, Music izeneko musika-eskolen Europako jaialdian parte hartuko du Getxoko Andres Isasi zentroak; 78 udalerritan milaka musikari elkartuko dira asteburu batean, udalerrri bakoitzean *masterclass* eta kontzertuak eskaintzeko. Dagoeneko sei mila lagunek izena eman dute Europatik etortzeko; Euskal Herriko partaideak ere milaka izango dira.

Beste askoren artean, Getxophoto argazki jaialdiarekin ere elkarlanean arituko gara; euskal argazkilari bat Japoniara bidaliko dugu.

Donostia 2016 gora eta behera, baina sorkuntzarako tartea ere eduki duzu. Patxi Gallego marrazkilariaz egindako *Nork komikia* kalean da.

Donostia 2016 egitasmoaren zuzendaritza behin-behinean hartu nuenean, hedabideen aldetik eraso oso bortitza sentitu nuen; jendearen aurrean bertsoak egiteari ere utzi nion, ikaratu egin nintzelako. Ez nekien mikrofono batetik kantatzen nuen hori zein goiburutara eramango zuten. Gauzek aurrera egin ahala, ordea, ezin izan diot neure buruari ukatu sortzeak eskatzen didan etengabeko lan hori. 2013ko otsailetik 2015eko urrira ibili izan gara lanean Patxi eta biok; berak marrazkiak egin ditu, eta nik, gidoia. Nire ihesbidea izan da; bizitza eman dit. ◀



Getxo, sasoi-sasoian

Berdintasuna indartuz saria, emakumezkoen kirolaren sustapenarengatik ematen den saria, Bizkerre Futbol Taldeko kideek hartu zuten.

Saioa Agirre gimnastak jaso zituen atzo Getxoko 2015eko kirolari onenaren sariak, ohiko garaikurra eta elastikoa, Getxo Sasoi Sasoi kirol-galaren barruan.

Fadura kiroldegiko Areto Nagusian egindako ekitaldian ezagutarazi zen Getxoko Udalak urtero antolatzen dituen sarien emaitza estua. Izan ere, Agirrek botoen %34 izan zituen, eta Jonathan Castroviejo txirrindulari itzurbaltzeta-rak epaileek emandako botoen %31. Irabazleengandik urrun geratu ziren hirugarren eta laugarren sailkatuak:

Lucia de la Puerta Jolaseta taldeko tenislaria (%18) eta Alex Cortabitarte judoka (%16).

Sakoneta gimnasia erritmikoko taldeko kide da Agirre, eta denboraldi honetan bihurtu da Espainiako eta Bizkaiko txapeldun eta Euskadiko txapeldunorde, besteak beste.

Gimnasta gaztea oso hunkituta eta esker oneko agertu zen galan, ezus-

tean harrapatu baitzuen sariak. «Garaipen denak lortzen lagundu didaten denei», hala eskaini zien garaikurra. Era berean, eskertu zuen saria berari ematea, «egin dudana aintzat hartu delako eta onarpen hori oso pozgarria delako». Izan ere, gogora ekarri zuen gimnasia erritmikoko «lan handia, entrenamendu-ordu asko eta aste-akabu asko irten barik» eman dituela, eta «edozein akatsek, agian ikusleak nabaritu ere egin ez duenak, saio oso bat atzera bota dezakeela». Halere, zailtasun horien aurrean argi utzi zuen «egiten dudana oso po-

zik» dabilela. Nazioartean lehiatu gura duela azaldu zuen, eta helburu hori lortzeko Espainiako selekzioan sartzen ahaleginduko dela esan zuen.

Galan saritutako beste kirolariak honakoak izan ziren: Getxo Arrauneko Alejandro Luis Regueiro eta Aitzol Guerrero mutikoak; belar-hockeyko emakumezkoen Jolaseta taldea; Arenas futbol-klubaren lehen taldea; Alfredo Olabegoia txirrindulari, triatleta eta ironmana; Txus Dominguez, Arri-gunagako skate-pistaren sortzailea; Airean Getxo Kluba; Bizkerre Futbol Taldea; Artaromo; eta Euskaltel. ◀

Zortzi domina, Espainiako Ziklokros Txapelketan

Espainiako Ziklokros Txapelketa jokatu zen pasa den aste-akabuan, Torrelavegan, Kantabrian. Bertan, zortzi garaipen eta podiumak lortu zituzten Uribe Kostako taldeen txirrindulariek.

Lointekek kideek eskura zituzten sei dominetatik bost ekarri zituzten. Elite-kategorian, Lucia eta Alicia Gonzalez zilarrez eta brontzez bueltatu ziren, hurrenez hurren; Aida Nuño taldekide ohia nagusitu zitzairen. 23 urte azpikoen kategorian, Alicia Gonzalez, Alba Teruel eta Eider Merinorentzat izan ziren sariak, handitik txikira. Era berean, kadeteetan,



Baque-Camposen Saioa Gil eta Sara Yusto podiumaren bigarren eta hirugarren mailan geratu ziren, Luisa Ibarrola amurriarraren atzetik. Azkenik, Elkar Kiroleko gazteek ez zuten dominarik lortu; Alba Fernandez eta Mireia Muñoz 4. eta 6. geratu ziren. ◀

Ugeraga eta Lointek, elkarregaz lanean, denboraldi berrian

Ugeraga Kirol Elkartearen emakumezko UCI taldeak Lointek enpresa urduliztarragaz lotu du bere proiektua, zortzigarren denboraldiz jarraian. Dori Ruanok jarraituko du zuzendaria izaten, eta honako lasterkariak ditu: Mar Bonnin, Maria Calderon, Empar Felix, Chloe Fraser, Rocio Garcia, Alicia Gonzalez, Lucia Gonzalez, Elisabet Llabres, Belen Lopez, Cristina Martinez, Eider Merino, Teresa Ripoll, Anna Ramirez, Gloria Rodriguez, Alba Teruel eta Aurore Verhoeven. Azkenik, taldeak elastiko berria estreinatu du, aurrekoaren antzekoa, laranja, baina zerrenda zuri horizontalagaz. ◀

Sheyla Gutierrez Lointeketik Ameriketara joan da

Sheyla Gutierrez Sopelako Lointek taldeko txirrindulari ohiak era onean hasi du urtea. Errioxarrak seigarren postua eskuratu zuen martitzenean, San Luiseko emakumezkoen Tourraren lehen etapan, Argentinan. Gainera, El Duraznon hasi eta amaitu zen 110 kilometroko etapak sari berezia ekarri zion: 23 urte azpikoen lidergoa eta maillota. Gutierrez Espainiako selekzioaren elastikoagaz parte hartzen dabil, pasa den abenduan Kaliforniako Cylance-Inspire taldeak fitxatu bazuen arren, azken unean taldea ez zelako inskribatu aipatutako tourean. Qatarren du hurrengo proba. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



EKIN
Jatetxea
Bolue 4, Algorta - 94.608.04.62

Zaldizko-proba, bertan behera



Galeako proban 1.000 bat euro banatzekoak ziren saritan. © BIZKAIKO HIPIKA FEDERAZIOA

Zaldizkorik trebeenek hitzordua zuten aste-akabu honetan Getxoko Galea zaldi-klubean. Izan ere, zapatuan eta domekan, hilak 16 eta 17, bertan jokatzekoa zen Euskadiko Oztopo-jauziko Txapelketaren proba bat.

Baina eguazten goizean, Euskal Hipika Federazioak jakinarazi zuen proba «bertan behera» geratuko dela, «aurreikuspen meteorologikoak» direla-eta. Hala ere, Federazioko kideek HIRUKARI azaldu diotenez oraindino ez dakite proba ez den egingo ala beste data batera atzeratuko duten, «horrelako kasuetan egiten ohi den eran». Ostera, denboraldi honetako egutegi estuak ez du kontua erraz ipiniko. Proba behin betiko bertan behera geratzekotan, orain arte izena eman dutenek inskripzioaren dirua berreskuratzea eskatu beharko lukete Galea zaldi-klubean. Bigarren kasua izatekotan, inskripzioa egiteko aukera luzatuko luke Federazioak bere webgunean eta ordaindu Galean egin beharko lukete

zaldizkoek, modalitateen arabera 20 eta 60 euro bitartean.

Txapelketan hamabi proba aurreikusita zeuden, egun bakoitzeko seinak. Zapatuan zein domekan, zaldiek honako altueretako oztopoei egin beharko liekete aurre: 50, 80, 100, 110, 120 eta 130 zentimetro.

Bost proba, Uribe Kostan

Aste-akabu honetako lehiaketak zaldi-egitaraua abiatu behar zuen eskualdean. Hurrengo hitzorduak honakoak izango lirateke: otsailaren 20an eta 21ean, Euskadiko Oztopo-jauziko Txapelketaren beste proba bat, Galean; apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean, Euskadiko Oztopo-jauziko Txapelketaren finala jokatu da, leku berean; ekainaren 26an, Tranko sariaren bigarren fasea hartuko du Erandioko Goierri zaldi-klubak; eta, azkenik, urriaren 22an eta 23an Euskadiko Oztopo-jauziko Txapelketaren beste proba bat izango da, Galean. ◀

info+: 944 734 895 / hipica@fvh.org

Elaia Torrontegik aurten utziko du lehia-kirola

Elaia Torrontegi Ronco taekwondolari plentziarra ez da Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan izango. Iraileko Brasilgo hitzordutik kanpo geratu da gaztea, azken urtean eskumako hankaren abduktorean duen lesioak saioetik kanpo utzi ostean. Horrela, ez du batu Olinpiar Jokoetara joateko behar beste puntu. Kontuak hala, lehiaketa-kirolari amaiera ematea erabaki du Torrontegik, 20 urtean jardun ostean. Aste honetan egin behar diote azterketa medikoa; emaitza ona jasoz gero, maiatzean Europako Txapelketan agur esaten ahaleginduko da. ◀

Raspasek sei domina lortu ditu Kantabrian

Raspas Arraun Elkarteak lehiaketa ederra egin zuen pasa den zapatuan, Euskadi eta Kantabriako Talde eta Gimnasioen Arraun-ergometroko Taldekako Txapelketan, alegia. Castro Urdialesen jokaturako dema horretan, Areetakoek sei domina lortu zituzten: hiru urrezko (emakumezkoen kadeetan, eta gizonezkoen gazte eta seniorrean), zilarrezko bi (gizonezkoen kadete eta seniorrean), eta brontze bat (gazte gizonezkoan). Txapelketan, lau arraunlariz osatutako taldeek hartu zuten parte. Horrez gainera, hiru marka apurtu zituzten. ◀



© PoulleNOT - WSL

Natxo Gonzalez surfleri plentziarra WSL Munduko Txapelketa Gaztearen olatutik jaitzi zen martitzenean, Portugalgo Ericeira eskualdean. Hirugarren txandan galtzaile suertatu zen, Tomas Fernandes portugaldarren aurkako deman. Munduko 32 surfleri gazte onenen artean dago.

I

Inaki
Bitxitegia

MONTBLANC, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

GetxoGaso
EUSKARAREKIN
BAT!

GetxoGaso
Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

Madrialek Errotabarri babestu du

Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Plentziako Errotabarri futbol-zelaiaren aferan jarraia positiboa hartu du, David Crestelo Plentziako alkateak eguaztenean jakinarazi zuenez. Udal ordezkariak aurreko egunean batu ziren Kosta eta Itsasoko Sostengarritasunerako Itsas eta Lur-eremu Publikorako Azpi-zuzendaritza Nagusiko arduradunakaz, eta epe luzeko konponbidea hitzartu zuten zelai arriskutsurako. Crestelok zehaztu du hitzarmena oraindino ez dagoela sinatuta, baina akordioaren gakoak honakoak dira: Ministerioak Errotabarriko lurrak utziko dizkio Udalarari 10 urtez, orain arteko kirol-jar-

duera gara dadin. Era berean, disuasio-aparkaleku irekia jartzen utziko dio, futbol-zelairako leku egokia bilatu bitartean.

«Egoera berri horrek, akordioa sinatuko den egunetik 10 urtera iraungitze-data izango duenak, eragin du Udal Gobernuak eztabaida ireki dezan». Eztabaida publiko horretan parte hartu ahal izango dute inplikaturako eragileek zein gura duten auzokide denek. Izan ere, Errotabarri «inbertsio handiak dakartza, eta horrek udalerriko egunerokoan ondorio asko izan dezake, epe motzean». Horregatik, elkarlanera deitu du Udalak, behin betiko konponbidea 10 urteko epea amaitu aurretik aurkitzeko. ◀



lazko martxoan, mobilizazio handia izan zen hiribilduan, Errotabarri konpon zezaten eskatzeko.



Escamezek 24 talde koordinatuko ditu. © ASTRABUDUAKO F. T.

Ivan Escamez, Astrabuduakoren koordinatzaile

Astrabuduako Futbol Taldeak kirol-koordinatzaile berria dauka, pasa den urtarrilaren 5etik. Ivan Escamez arduratuko da klubaren taldeen prestaketaz. Escamezek ez du erronka erraza izango, bere aurretik Rafa Iglesiasek jardun baitzuen erantzukizun horretan. Iglesias pasa den

irailean zendu zen, eta berari zor dio klubak gaur egun duen arrakastaren zati garrantzitsu bat. Era berean, zaleen maitasuna bereganatu zuen urte luzez. Kontuak hala, klubaren kide denek ondo etorria eman diote Escamezi, eta «poz-pozik» agertu dira «erronka berria» hartuko duelako. Era berean, klubeko partaideek espero dute futbol-taldeak «gutxika-gutxika hazten jarrai dezala», kirol-arloari dagokionez. Escamezek Aritz Monasterioren, Aitor Urcelayren eta Iñigo Fernandez laguntza izango du. ◀

Jonas Ramalho eta Ager Aketxe, lehoikumeakaz

Bilbao Athleticetik Uribe Kostako beste jokalarari bi dauzka, pasa den Gabonetatik. Alde batetik, iragan abenduaren 19an Jonas Ramalho Chimeno atzelariak mediku-alta hartu zuen. Leioaztarrek lesio larria izan zuen ezker belaunean, pasa den maiatzaren 20an, Gasteizko Mendizorrotza futbol-zelaietan. Ramalho Gironako taldeagaz jokatzeko bigarren urtez, Athleticetik utzita. Manu Barreiro Alavesen aurrelariagaz izandako talkaren eraginez, atzelariak ezkerreko hankaren aurreko lotailu gurutzatua apurtu zuen. Ondorioz, zazpi hilabete-

ko errehabilitazioa behar izan du. Ramalho «oso pozik» agertu da berriro ere deialdietan egoteagatik, nahiz eta oraindino jokatu ez duen.

Beste aldetik, Ager Aketxe lehenengo taldetik bigarrenera jaitsi zen pasa den urtarrilaren 4an. Itzubaltzeta/Romokoa bi urtez izan da San Mameseko lehoien artean, baina daborduko soberran zegoen Ernesto Valverderen jokoplanteamenduetan. Erabaki hori hartu aurretik, hainbat taldek eskatu zioten Athletici utzita uzteko. Sonatuena Tenerife izan zen, baina, ez Aketxek, ezta klubak ere, ez zuten onartu. ◀

Leioaztarrek taldea indartu dute Gabonetan

Leioako Kirol Elkarteko gizonzkoen lehen taldea Bigarren B Mailako taularen erdian dago, 24 puntugaz, lehenengo buelta amaituta. Javier Landeta presidentea jakitun da hori ez dela nahikoa liga-amaiera lasaia izatea gura badute: «play-out eta jaitsiera postuetatik lau puntuko abantaila besterik ez dugu». Kontuak hala, klubak erdilari bi fitxatu ditu Gabonetan: Pedro Capomenorcarra, eta Frantzian jaio eta Lezaman hezitako Yannis Rahmani, Athleticetik utzitakoa. Horrenbestez, biek bete beharko dute Eric Curbelo kanariarrak utzitako lekua. ◀

Ainize neskatoa babesteari ekin dio Sarrienak

Leioako Kirol Elkartek Ainize izeneko neskatoa laguntzeko diru-batzea abiatu du, Ortuellako futbol-taldea eta Bizkaiko eta Arabako beste klub batzuek batera. Hiru urteko ume ortuellarra da Ainize, eta kalte neurologikoak ditu, 15 hilabete zituenetik burmuineko tumore bat kentzeko lau ebakuntza egin zizkietenetik. Klubak lapikoa ipini du Sarriena kiroldegiko tabernan, «elkartasun-kausa horri bere harri koxkorra ekarri gura duten denek ekarpena egin ahal izateko». Dirua hilaren 23an helaraziko dute, Ortuellan antolatuko den elkartasun-egunean. ◀

SARTU GURE
WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902-103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



cianoplan
SOLUCIONES INTEGRADAS

Zorion-agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza... Bidali zeurea!
publi@hiruka.eus · 94 491 13 37

5€



IZARO SOPELA
Familiaren partez

Zorionak, Izaro! Errege-egunean izan zen etxeko printzesaren urtebetetzea! 9 urte, zein handia zaren! Gure opari onena zara, bihotza; musu handi bat!



MARTIN ALGORTA
Ozpintxuen partez

Ongi etorri, Martintxo! Gure algortar-lekitarra heldu da! Besarkada erraldoia amari eta aitari, sorgin ozpintxuen partez!



ALVARO BILBO
Kuadrillaren partez

Zorionak, Pollo! 31 urte eta nerabe baten antza oraindik! Primeran ospatuko dugu asteburuan! Besarkada handi bat, eta dozena erdi kaña, mesedez!



NINBE BARRIKA
Lankideen partez

Zorionak, barrikoztar langile fin hori! Eskerrik asko denon soldatak ordaintzeko egiten duzun lan itzelagatik! Tea baino, hartuko dugu beste zerbait?

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Galtzagorri iletsu batek argituko dizu bizitza. Ardurara ere izango da zuretzat, baina adurra darizula ibiliko zara beragaz zaudenean.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Bizitzaren alde basatia azertzen zabiltzala uste duzu. Baina zure inguruan galdetuko bazenu, konuratuko zinateke asko duzula ikasteko.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Lasai egon; ez da erraza izango, baina topatuko duzu. Halere, etxea behin eta berriro miatu, eta altzari denak mugitu beharko dituzu.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Ez izan nagitsua. Durangon erosi zenuen liburuak hor jarraitzen du, bakar-bakarrik, nork irakurri barik. Azala zabaldu, eta harrapatuko zaitu.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Hotza eta euria zer ziren daborduko ez zenuenean gogoratzen, negua bueltan dator. Zorionekoa zu! Orain, disfruta itzazu.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Egin gura dituzun gauzak egiteke zoaz ia egunero ohera. Pentsatu hobeto zelan antolatzen duzun eguna, eta hasi goizean zure lehentasunetatik.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Kontuz ibili kirol arriskutsuakaz. Ez duzu garai ona labanaren gainean ibiltzeko. Egin ariketa lasaia, besterik ez.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Berde koloreko objektuek zorte ona ekarriko dizute aste honetan. Halere, ez pentsa horri esker dirujokirik irabaziko duzunik.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Espero baino lehenago izango dituzu sendiaren al-biste berriak. Ez utzi albo batera eta lagundu, denboragaz kontu garrantzitsua izango da-eta.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Miatu ondo etxea: baliteke intsektuek euren errepublika independentea sortu izana. Zuk ikusi negoziatzeko prest zauden.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Ez duzu zertan udaberri arte itxaron beharrik, bere begien dir-dir hori ikusi eta zure odola bor-bor sentitzeko. Gogoko lekuan, aldatsik ez!




Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Gutun bat bidaltzen badizute, ez da seguru aski onerako izango; hartu aurretik, begiratu igorlea. Isuna izan daiteke.

Zazpi ezberdintasunak



Soluzioa





Kantera skatezaleen eromen kolektiboa



Arrigunagako Kantera skate-parkeak bizitasuna eta nostalgia eragiten dizkie, erdibana, eskualdeko gupil gaineko akrobaziazale beteranoei. 1987tik gaur arte han bizitakoari begiraldia bota diogu protagonista eta lekuko bidez.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Surflari eta *skater* aitzindariak sortu zuten Kantera irrastatze-gunea 1987an, Algortako Arrigunagako hondartzatik hurbil, harrizko murrue artean. Orduko kirolariak gazte ipurtarin, sortzaile, parrandazale eta basatiak ziren, gizarteak markatutako roletatik urrun zebiltzanak, *underground* zer zen ere ez zekitenak. Bertan, euren kosmogonia eraikitze gogoz jardun zuten, patinetetan, arrapala- eta aldapa-jauzietatik Euskal Herri osoan eragina izango zuen skate-parke maitagarria salto emateko.

Erradikalak modan

Gaur egun, ordea, Kantera modan dago. Alde batetik, pistak hainbat belaunaldi gogobete duelako; bertan orduak, egunak, urtarokak eta urteak egin dituzte: patinagaz praktikatzen, erretzen, barre egiten, begira, apurtutako eskumuturraren mina jasaten, berbetan, parrandan, ligatzen, musika entzuten, abesten edo bestelako jardura batean. Berdin balio izan die hasierako formatuan zein igerileku formagaz...

Beste aldetik, azken hilabeteotan astroak lerrokatu dira, Arrigunagaren gainean arreta isiotuz. Horrela, denbora laburrean, Bowlzilla ekimenaren bidez gozatu ahal izan dugu Brad Bowman, Danny Leon, Alex Halford edo Pat Ngoho bezalako skatearen maisuak. Horrez gainera, Jon Amianok, Fernando El-

virak eta Javier Mendizabalek, urte bi baino gehiagoko lanaren ostean, amaiera eman diote *La Kantera 1987-2015* lanari, liburua baino Kanteraren gaineko entziklopediatzat jo behar duguna, 360 bat orrialde-tan batu baitituzte argazki, anekdota, kartel, komiki eta enparauak, hona ekarri ditugunak. Azkenik,

“Guztiei gustatzen zitzaien Arrigunagako jaitziera, Babes Zibileko nagusiari izan ezik! Beti zeukan aurpegia itxuragabetuta”

baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, Getxoko Udalak Txus Dominguez aitzindaria nabarmendu berri du: pasa den martitzenean Kiroltasuna saria eman zion Getxo Sasoi Sasoiaren kirol-galan. Garaikurragaz batera, Dominguez eskertu zioten Arrigunagako skate-pista sortu izana eta kirol horri emandako dena.


Kantera baino lehenago

Jon Amianok eta Javier Mendizabalek *La Kantera 1987-2015* biblian arrazoiagaz pontifikatu dutenez, Kanteran ikus daiteke «laguntasunaren magia, adierazpen pertsonala eta askatasunaren bilaketa, hori

baita *skateboarding*-aren benetako espiritua». Baina, historia inoiz ez da nonbaiten hasten, beti baitago atzera jotzea, beste aurrekari baten bila. Amianok, Elvirak eta Mendizabalek arreta ipini diote 1984ari, urte horretatik abiatu dute liburuaren lehenengo kapitulu. Dena den, 70eko hamarkadan Algortan baziren daborduko Sancheski-ek zoratutako gazteak. Koldo Marcillak gogora ekarri duenez, garai hartan «Alangoko inguruan bizi ginen, aldatsez inguratuta, eta entretenimendu hutsa zen horietatik botatzea, bizikletaz, goitibeheraz zein skatez, baina hasieran eserita joaten ginen». Txus Dominguez ustez ere, orduko garaian normalenak oso Sancheski sinpleak ziren, 2. edo 3. zenbakikoak. Gaur egun hain material eskasa dirudienagaz, «asfaltoan surf egin zitekeen, joder baietz! Kresal beltza. *Cutback*-ak, *rentring*-ak, hesi-tutuak, dena zen surfa, ametsa errealitate egina».

Eboluzioaren hurrengo pausoa arrapalak izan ziren. Leandro Agirretxeren esanetan, «bertan topo egin genuen hainbat *ikasleren* artean (Abel Gonzalez, Federico Gonzalez, Kuko Almagia, Javi Argalaza...), Getxo III institutuko arrapala muntatu genuen. Ikasketaburuak baimena eman zigun institutuaren atzealdeko zabalgunean instalatzeko». Metalez es-talita zegoenez, arrapalari «benetako txinpartak» atera zizkioten, baina poztasunak gutxi iraun zuen: «azkenean kendu egin ziguten, klasean zeuden ikasle guztiek kasu gehiago egiten zitelako gure eboluzioei, irakasleen azalpenei baino».

Halere, Agirretxek eta bere adiskideek ez zuten bandera zuririk atera: «ostean, Getxoko Udalak diruz lagundu zigun eta beste arrapala bat izan genuen, Gabonetako Haur Parkean jarri zena. Diseinuaz, Andres Benito del Valle eta Txus Dominguez



ARGAZKIAK: TXUS DOMINGUEZ, CARLOS TERREROS, SERGIO MARTIN, JUAN LIMAS LOPEZ

arduratu ziren». Ordura arteko skategunerik onena izan zen, eta Gabonen ondoren San Nikolas plazan ipini zuten, modu iraunkorrean. Bertan, skate txapelketak ere abiatu zituen Algortako jai-batzordeak.

Baina bertako skaterrak konbentzitututa zeuden beste urrats bat eman behar zutela, eta «manifestazioa eta guzti egin genuen Algortako kaleetatik» Kanterako skate-parkea eskatzeko. Agirretxeren ustez, hori «eraikitzeak iraultza ekarri zuen, ez bakarrik Algortan, Euskal Herri osoan baino».

Tenplu-aroa

Kanteraren inaugurazioaz oroitu da Carlos Terreros: «inaugurazioa handitasunez, alkateagaz eta txapelketagaz, sariak eta askaria. Eta handik gutxira profesionalak etorri ziren. Europatik heldu ziren lehenak, amarru izugarriakaz, abrakadabra barik. Errespetua eta erabateko miresmena. Hasierak ziren, eta daborduko dena halakoa zen: erasora! Alde bat zoroetxe, eta bestea haurtzandegi».

Izan ere, nagusiei errespetua erakustea ez zen izan gorde behar izateko legea. Eduardo Rat Saenz Amilibiak kontatu duenez, 1993an edo, «*Minicerdos* izan zen Kanterako gazteek eman zioten erantzuna, *Jamones Brigade*-ri, Alfonsok eta Txusek sortutakoa *Bones Brigade* parodiatzeko. *Minicerdos* begirune bakoak ziren, bizarra kentzeko xafiak bezain zorrotzak». *Kako* Fernandezek oroitzapenak ere eredu-garriak dira: «gogorapen ahaztezinak ditut: goizean sasieskola egin, trenean kolatu, *pika*-rengadik ihes egin, eta minutu bira Kanterara jaitsi. Bertan jendetza ezagutu nuen».

Garai horretako beste ekimen sonatua izan zen Arrigunagako jaitsiera, Kanteran amaitzen zena.

1990eko hamarkadako hasieran abiatu zen, Dominguezek *La Kantera 1987-2015* bizitza-gidan idatzita utzi duenez. Lehenengo jaitsiera «ilegala izan zen. Ekainaren 23an izan zen, udako solstizioa, San Juan gaua. Eta Arrigunagan zen, Getxoko lekurik sakratuena, bertako larre askotan egiten baitziren eta oraindino egiten dira suteak nonahi ilunabarrean». Orduan hasi ziren Kanterako jaiak eta kontzertuak eta egunsentira arteko azken jaitsiera. «Guztiei gustatzen zitzairen, Babes Zibileko nagusiari izan ezik. Beti zeukan aurpegia itxuragabetuta». Urte batzuk iraun zuten jaitsierek, baina erorketak, parrandak, mozorroak eta trebetasun-erakustaldiak batera, Kanteran igerilekua jartzearen ideia otu zitzairen.

“Asfaltoan surf egin zitekeen, joder baietz! Kresal beltza. Cutback-ak, retring-ak, hesi-tutuak, dena zen surfa”

Garai hura maite zuen Iratxe Blascok: «ez zegoen *Cabarceno*, ez zegoen tabernarik, kulunkarik, ezta *bowl*-a ere. Askoz isolatuago geunden denetatik, eta horrek *molatzen* zuen». Iritzi berekoa da Alain Gokoetxea: «Kanteran bizi izandako garairik onena, eta oraindino ez dena errepikatu, eraiki zenetik 1993ra artekoa izan zen. Niretzat hori da espiritua».

2001ean heldu zen hondeamakina, eta beragaz batera, «tendentzia suizidetarako *bowl*»-a eraikitzea, Carlos Terrerosen arabera. Azkenik, Steve Bailey-k laburtu duenez, «skate-ak batu gintuen guztiok, eta Kantera topagunea izan zen». ◀




La Kantera 1987-2015

Ezkerrean topa ditzakezun anekdotak eta aipuak eta goian ikus daitezkeen argazkiak, *La kantera 1987-2015* liburuko orrietatik hartuta daude.

Liburuan ehunka argazki gehiagoz eta dozenaka profesionalen eta zaleren lekukotasunez goza daiteke. Horietako batzuk aipatzearen, hona izen batzuk: Seth Keil, Jakue Andikoetxea, Iker Elorriaga, Willy Uribe edo Koldo Serra. Liburua Internet bidez eros daiteke 40 euroan, baina gomendagarria da Arrigunagako Iluna Bar tabernan, 35 euroan, edo Algortako skate-dendaren batean hartzea, daborduko agortuta ez badago, behintzat. Liburua erostean, Getxo Skate Kluba ere lagunduko duzu.

Erosketak: Vsd.mitiendy.com/productos/lakanterabook



Mundukatuak

Yoroo Gningue nayobetarra

«Euskadin gaude, eta euskara ikasi behar da»

Bilbon bizi arren, egunero Getxo udalerrian dabil Yoroo Gningue kale-saltzaile senegaldar euskalduna. Bertan lagun asko ditu, baita hainbat bezero ere. Arropa-poltsa astunakaz ibiltzen da hara-hona, bizi-modua bilatzen.

Izan ere, horregatik etorri zen Euskal Herrira: Nayobe bere herrixkan bizimodu neketsu eta txiroa besterik ez zuelako. «Herri txikia da, itsasotik 50 kilometrora, eta bertan krisia dago» dio Gninguek euskaraz, gaztelaniazko berba batzuk lagunduta. «Bertan krisia dago, gauza asko falta dira».

Esaterako, bertako ura «oso gazia da; ezin da edan, eta ez du nekazaritzarako balio. Edateko, plastikozko botiletan datorrena erosi behar dugu». Hemendik ikusita prezioa ez da garestia, «baina guk diru gutxi dugu, eta guretzat asko da» azaldu du senegaldarrak. Nekazaritza eta abereak egu-

raldiaren menpe daude, beraz. Uztailetik irailera eurite onak badira, dilistak eta kakahueteen uztak onak izango dira; hori ezean, bestelako urik eta erregadio-sistematik ez daukate. Era berean, Internet ere ez dute, ante-

“Nayobeko ura oso gazia da; ezin da edan, eta ez du nekazaritzarako balio”

narik ez dagoelako. Hala ere, bizi-baldintzak zertxobait hobetu dira, 2002tik Medicus Mundi heldu zenetik, osasunpostua baitaukate. Ostera, Gninguek laguntza gehiago behar dutela uste du, eta, bide batez, Getxoko Udalekoek elkarrizketa hau irakur dezaketelakoan, haiei ere eskatu die «laguntza, mese- dez», bere herrian jendeak bizitza dui-

na egin eta bertan lan egin ahal izateko. Berak ere babesa behar duela dio.

Bertaratu gura duenari bertako azokak ikustea gomendatzen dio, kultur tradizioa islatzen baita horietan, lanari, nekazaritzari eta abereei lotuta. Bisitariak arroza eta arraina topatuko ditu: ohiko jakiak. «Haragi gutxi jaten dugu», zehaztu du. Beste menu tipikoa zerealak dira, dilista-zopan. Bertan ez dago alkohola dastatzerik.

Bitartean, Gningue «eroso» sentitzen da Getxo udalerrian: «jende guztiak ezagutzen nau». Horretarako sekretua, zalantzarik gabe, bezeroakaz euskaraz egiten duen kale-saltzaile beltz bakarrenetarikoa izatean datza. «Euskara ez da zaila; erraza da, baina nik kalekoa bakarrik berba egiten dut», dio. Plazetan ikasi du, entzuten eta esaldiak libreta batean apuntatzen, ikasteko: «Euskadin gaude, eta euskara ikasi behar da». ◀

NOR DA

Nongoa

Nayobe (Louga, Senegal).

Adina

56 urte.

Zertan dabil

Kale-salmentan dihardu Bilbon, eta, batez ere, Algortan, Areetan eta Itzubaltzeta/Romon. Izan ere, Bilbon «gutxi» saltzen dela dio.


Ikasketak

Ez zuen eskolara joateko aukerarik izan. Hala ere, bere kabuz ikasi du.

Noiztik Euskal Herrian

2001etik, 15 bat urte.

NONGOA DA



Lurraldea

Senegal

Azalera

196.722 km² (9,4 aldiz Euskal Herria)

Ingurunea

Louga herrialdea

Biztanleria

677.533.

Hizkuntzak

Senegalgo hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da, kolonizatzailen berbaera. Horrez gainera, makina bat hizkuntza dago: amazigera, bassari, soninke... Garrantzitsuena wolofera da, Senegalgo biztanleen %40k dakite. Gambian eta Mauritianian ere erabiltzen dute, eta 5,5 milioi pertsonak dute ama-hizkuntza. Guztira, hiztun denak 12,3 milioi direla uste da.

Dirua

Erdi Afrikako Finantza-kooperazioak kaleratzen duen CFA libera.

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua